

1993ko abenduak 17


216. zenb.

PRESS


ARRASATE

Erreportaia
**Udalaitz,
altxor
naturala**

Santamasak



DEFENTSARIK ONENA ...



... BATASUNA

GANBARAK ZURE INTERESAK BABESTEN DITU

Bada zure interesak babesteko eta zeure jabetzak eragindako arazoak aurrikusteko eta konpontzeko era xume bezain egokia:

JABETZA HIRITARREKO GANBARA

Gutxien uste duzunean sortzen direlako arazoak, egunera itzazu kuoten ordainketak. Honela, jabe zaren partetik GANBARAK talde-interesak babesteko dizkizu edozein administrazioren aurrean eta zerga, kontratu-erredakzio, eskakizun, jabe-kidetzatza-estatutu, errenta-arau, legedi, balioztapen eta beste hainbat gairen inguruko argibideak eskainiko dizkizu, eta guzti hau, kostu gutxi izanik asko balio duen kuota baten bitartez.



Zure Ganbara Gipuzkoan

GIPUZKOAKO JABETZA HIRITARREKO GANBARA OFIZIALA

DONOSTIA - Bilbo Plaza, 3 behe. Tfnoa. 46 41 33 • EIBAR - Egiguren, 12-14 behe. Tfnoa. 11 75 54 • IRUN - Berrotaran, 7 - 1. Tfnoa. 62 09 91.

ARRASATE - AHOKULARITZA JURIDIKOA - AURRETIKO TXANDA. Tfnoa. 79 98 86

Astelehenetan itxita

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa

79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Santamasak

Santamasetako jaiak iragana dakarkigu gogora, aspaldian izan ginena, gure arbasoengandik jaraunsi (heredatu) duguna. Baina zer da guzti honetatik gelditzen zaiguna? Zer gertatu da azken mendeotan? Batzuen ustetan, euskal komunitateak mendeetan zehar munduan egoteko eta berari eragiteko izan duen tankera ahaztu eta baztertu egin dugu, belaunaldiz belaualdi; beste batzuen ustetan, oster, eboluzio lege naturalaren arauetara makurtuz, eboluzionatu egin dugu, gaurregun garena izatera heldu arte.

Santamas egunean denbora-tunelean sartu eta mende batzuk atzera jotzeko aukera dugu. Atzera jo esatean, denboran esan nahi da, jakina; baina zenbat mende atzera? Jorge Oteizaren hitzetan neolitikoaren kromlechetik gaurra 80 amama-loba erlaziok baino ez gaituzte banatzen (edo hobeto esanda, lotzen), 80 amama izan dira euskal neolitikotik Pascuala Iruarizagaraino, hau izanik Oteizaren emaztearen amama.

Abenduaren 22an, Arrasaten, aukera ederra izango dugu baserriko gaiak ikusi eta dastatzeko: sagarrak, makatzak, intxaurrak, urrak, azak eta abar luze bat. Artzainek eginiko gaztaia ere ez da faltako. Han

izango dira hainbat kantatan aipatutako mama goxuak ere: txakolina eta sagardoa. Harrituta desfilatuko dugu kaletarrok ferixaluko merkatuan jarritako kaiolen aurretik, hegazti xelebreen izenak asmatu ezinka.

Artisautzak ere bere tokia izango du, jakina, eta hamaika eskulangintza ikusteko parada izango dugu: danbolingintza, ehungintza, zurgintza, otzaragintza eta abar.

Kalean titirri-tatarra dabilzanek, berriz, bazter guztietan Iturengo tuntuurrunean egingo dute trill: beren hots monotonoek garai bateko erritu eta ohiturak ekarriko dizkiete gogora. Txalapartaren hotsak bertso-larien koplei egingo die sarrera, jakin dakin-gunarren bizitza beraren antzerkia ikusten ari garela. Eta tuneleko iluntasunean gaude-la, alboka, txistua, trikitrixa, danbolina eta panderoaren soinetatik aldentzeko arazoak ditugula somatuko dugu. Tuneleko zurrunbilo kulturalak harrapatuko gaitu. Baina noiz arte? Santamasak pasa ondoren jakingo ote dugu gure arbasoek zenbait amama-loba erlaziotan zehar munduan egoteko eta berari eragiteko izan duten tankerari eusten?

Baina zertan datza izate hau? Folklorearen zurrunbiloa baretu ondoren, hona hemen luzarorako hausnartze gaia.

**MATILDE SAINZ
OSINAGA**



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingarugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrea, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gerfu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Juan Jose Uriarte



“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

**ARTOLA
KOMERTZIALA**

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE



**Alkoholarekin arazoak
dauzkazu?**

**Agian,
“Alkoholiko
Anonimoek” lagundu
ahal dizute!!**

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

....

**Jose Mari
Kruzetari,
autopistaren
aldeko
plataformakoari:**

Azaroaren Sean, Arrasate Pressen argitaratutako elkarrizketa batetan, joan zen mendeko historian oinarritzen zinen Maltzaga-Urbina ardatza posiblearen tesia defendatzeko. Konkretuki, Haussmann eta Pariseko Planifikazio urbanistikoa aipatu zenituen, eta gai honi buruz matizazio batzuk egin nahi nituzke, irakurleak garai hartako urbanistika berria bultzatu zuen arrazoiak ezagutu ditzan, ez baitzen planifikatu zuk emandako hain arrazoi sinplean: "... Pentsaizu orain dela 150 edo 200 urte Pariseko bulebarrak Haussmann arkitektoak egin zituenean, emon ziela zabalera ikaragarria. Orduan karroekin ibiltzen ziren, eta 200 edo 150 urtera, haiek bulebarrak, hain zabalak egin zirenak, kotxez beteta daude...". Jose Mari, hasteko, apreziazio bat: George-Eugène Haussmann baroia (1809-1891) ez zen arkitektoa izan, funtzionari edo politikaria baizik, Girondoko prefektoa hain zuzen ere. Pariseko Planifikazio Urbanistiko Berriak (1850-1870), helburu garbi bat izan zuen bereziki: Napoleon III.ak (eskuindarra, autoritarioa), behar beharrezkoa zuen momentu hartan, ordenu publikoa kontrolatzea astinketa iraultzailetik libra-

tzeko, agintariak susto ederak pasa zituztelako 1848 eta 1871.eko Pariseko Komunak bultzatutako iraultzen ondorioz. Erdiaroko Paris zaharreko kaleak klase popularren babesleku ziren, barrikadak eraikitzen zituzten eta defentsarako ondo baino hobeto hornitzen ziren adokinak edo lauxak pilatuz. Horrela gauzak, erreza egiten zitzairen infanteria edo zaldieriaren indarrari aurre egitea.

Lurraldearen kontrola ezinbestekotzat jo zuten; kale estu eta ilunak suntsitu eta eskema geometrikoetat baliatuz, boulevard eta etorbide zabalak diseinatu ziren ejerzitoaren mugimenduetara egokituz. Honi esker, iraultzaileen aurkako fusil deskarga eraso eraginkorra lortu zen.

Planifikazioak izan zituen bai, beste arrazoi batzuk: Osasungarritasuna, lur espekulazioa eta, herriaren aurrean, enperadorearen prestigioa berreskuratzea. Hauek bigarren plano batean.

Trafikoaren arazoak hirugarren planoan datoz, eta ez, etorkizunari begira zeudelako. Orduko agintariak ez ziren bisionarioak, ezta gaurkoak ere. 150-200 urte barruko Euskalerra nolakoa?

Bukatzeko galderatxo bat: Nola egiten dira autopista merkeak eta berdeak edo ekologikoak aldi berean? Hori oraindik ez da asmatu.

FATIMA ERRASTI.

....

**Gaztetxearen
ondoko
bizilagunei,
batipat**

Zuengana zuzentzen gara aste-bukaera honetako azalpen batzuk ematera. Jakin zenezaketenez, abenduak 10, 11 eta 12an, gure adiskide Beleni omenaldi moduan ekitaldiz betetako aste bukaera bat ospatu dugu. Giroa paregabea izan da, duda gabe, jendearen partizipazio majoarekin. Hala ere, ordutegi aldetik ez gara hain fin ibili. Aste-bukaera honetako bi kontzertuak beranduago bukatu dira, larunbatekoa behar bada. Hala ere ez dugu uste aste-bukaera baterako hain berandu denik, baina "jende nagusia (??) ere badagoeenez, axola behar.

Egia esan, ostiraleko kontzertua pixkat berandutu zen, Madrileko talde bat izan genuelako beste batzuen artean, eta arrazoiaren bat eduki zuten berandutuaz. Larunbatari dagokionez, arratsaldeko ekintza bukaezinekin (baina ikaragarriekin), gaueko kontzertuko soinua prestateta guztiak oztopatu zituen, eta berandutu.

Besterik gabe, eta guk antolatzen ditugun ekintzak zuek ere nahi izatekoan aprobetxatuko dituzuelakoan, beste bat arte...

Bukatzeko, merezi izan du aste-bukaera honetakoak.

**AGAKO (ARRASATEKO
GAZTE ALTERNATIBOEN
KOFRADIA ORGANIZATUA)**

SUPERMERKATUA

ARABA ETORBIDEA - ARRASATE

**ELIKADURA / EDARIAK / TXERRI-HARATEGIA / FRUTA ETA
BARAZKIAK / IZOZTUAK / DROGERIA-LURRINDEGIA / TRESNAK**

Zer duzu gustokoen Santamasetan?



Jose Antonio Nuño
Jubilatua (69 urte)

Baserritarrak, harrijaso-tzailliak eta horrek danok. Antxiñako gauzak oso politak izaten die.



Saioa Irazola
Estetizista (19 urte)

Jendia egoten dala, eta jai giroa. Bezperan urteten dot normalian, baiña aurten ezin dot.




Agustin Davila
Gelmako langilea (59 urte)

Niri azoka plaza eta feria gustatzen zait. Jaisten gara bai, eta txistorratxo hartzen dugu, hori da egun horretako txikiteoak daukan gauzarik onena.



Albina Ugarte
Jubilatua (72 urte)

Oiñ ez naz ibiltten kalian, gure denporatan bai, baiña oiñ... Ni ez naz kalian ibiltteku baiña ferixia ondo dago, ezta?



Ramon Palacios
Jubilatua (62 urte)

Baserriko eta bertako gauzak. Urtero ikusten dut feria, eta sagardoa, gazta, txistorra eta guzti horretatik pikatzen dugu apur bat.



Mari Carmen Leon
Iturbideko langilea (43 urte)

Ez dakit, bada, egoten den giroa, nahiz eta azken aldi honetan behera egin duen pixkat. Baina hori, giroa, eta ondo pasatzen dugula.



Paco Roman
Langabezia (39 urte)

Egoten den giroa asko gustatzen zait. Egiten diren afariak ere bai. Feriara ere jaisten naiz umeekin.



Marian Gutierrez
Etxekoandrea (34 urte)

Batez ere merkatua eta feria, eta umei baserritar jazteak egiten dien ilusioa.

OKASIOA!!

Informazioa
eta
salmenta


79 19 96

Lokal komertziala salgai

(Ferixalekuko parkearen alboan)

OSO PREZIO INTERESGARRIA

Ordainketa-era eztabaidagai



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguualatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutzegoria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udai zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberdrola) 12 01 62
 Gasas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 17
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.
Larunbata 18
 Egunez eta gauez: Amezua. Santa Marina
Igandea 19
 Egunez eta gauez: Ruiz. Magdalena.
Astelehena 20
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.
Asteartea 21
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.
Asteazkena 22
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.
Osteguna 23
 Español. Iturriotz. Corcuera. Musakola.

17 OSTIRALA

ZINEA
 "Amor a quemarropa". 7etan eta 10etan.

XAKEA ARRASATEKO 5. TORNEO IREKIA
 Arrasateko kiroldegian. Jokalariko ordubeteko jokaldiak. 4.30etatik 6,30etara eta 7etatik 9etara.

TAILA ERAKUSKETA
 Kepa Uribarren Munitxaren lanak ikusgai. Harresi aretoan. Lanegunetan arratsaldeko 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, eguerdiko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara. Abenduaren 31rarte.

MAHAINGURUA
 "Atxabaltarrok solidarioak gara?". Hizlariak: Jasone Gorroño, Arantxa Akizu, Juanjo Perez, Jon Sarasua, Resu Abasolo, Aitor Irure. Moderatzailea: Arantzazu Loidi. Aretxabale-tako udaletzeko ganbaran, arratsaldeko 6,30etan.

KOLDO AMEZTOI IPUIN KONTARI
 "Ibarxola" ipuinaldia. Eskoriatzako Kultur Etxean. Gaueko 10etan.

RUPER ORDORIKA
 Amaia antzokian, gaueko 10,30etan. Prezioa, 500 PTA. Santamas Batzordeak antolatuta.

KANTU ZAHAR IKASTAROA

AEDko Gazte Mobidiek antolatuta. Urtarrilaren 15etik martxoaren 5era. Larunbatetan 4.30etatik 7etara. Mikel Markezek emanda. Jende kopuru mugatua. Matrikula 2.000 PTA. Informazioa AEDn.

18 LARUNBATA

ZINEA
 "Amor a quemarropa". 5etan 7.30etan eta 10etan.

PILOTA PARTIDUA
 Santamas XIV. Txapelketako azken partiduak. Goizeko 10etan, Iturripe pilotalekuan.

AUKEAKO BILERA
 Musakola eta Iturripe kiroldegietako frontoi, futbol, tennis eta squash kantzak al-kilatu nahi dituztenentzat. Bilera, Musakolako bulegoan, goizeko 11etan.

XAKEA. ARRASATEKO 5. TORNEO IREKIA
 Arrasateko kiroldegian. Jokalariko ordubeteko jokaldiak. Goizez, 10etatik 12etara eta 12.30etatik 2.30etara. Arratsaldez, 4.30etatik 6.30etara eta 7etatik 9etara.

TRIALSIN IBAI-ARTE SARI NAGUSIA
 Arrasateko erdialdean, Arrasateko Motozale Elkarteak antolatuta. Arratsaldeko 3.30etan.

"HIRUGARREN MUNDUA" TALDEAREN EKINTZAK
 Hirugarren munduari buruzko kultur lehiaketaren sari banaketa. Aretxabale-tako Zaria zineman, eguerdiko 12etan. Muralak ikusgai Aretxabale-tako Euskal Txokoan, goizez eta arratsaldez. Herrialde pobreen egoerarekin zerikusia duten aldizkariak ikusgai.

KONTZERTUA
 Lin Ton Taun, Def Con Dos eta E.H.Sukarra taldeak. Arrasateko kiroldegian, gaueko 10,30etan. Sarre-rak, 700 PTA aurrez erosi-ta, eta 1.000 PTA takilan.

19 IGANDEA

ZINEA
 "Amor a quemarropa". 5etan 7.30etan eta 10etan.

MENDIRA MURRUKIXOREKIN
 Elorretako Haitzera. Irteera goizeko 9etan, Aretxabale-tako partenoitik.

XAKEA. ARRASATEKO 5. TORNEO IREKIA
 Aurreko eguneko ordutegi be-dina.

XV. SANTAMAS KROSA
 Goizeko 11etan gaztetxo-en maila. 12.30etan nagusien maila. Izenematea proba hasi baino lehen. Erdiko Kalean.

III. BINAKAKO ARIN-ARIN eta FANDANGO TXAPE-LKETA
 Eguerdiko ordubatean. Sebe-ro Altube plazan. 14 urte-tik beherakoentzat.

"HIRUGARREN MUNDUA" TALDEAREN EKINTZAK
 Aurreko eguneko ekintza berdina.k

AKORDEOI JAIALDIA
 Aramaio elizan. Arratsalde-ko 5.30etan. Aretxabale-tako akordeoi taldearen emanaldia.

SANTAMASAK 93
 Dantzaldia Herriko plazan. Eguzki taldearekin. Arratsaldeko 7etatik aurrera.

KONTZERTUA
 "Ear" talde suitzarra eta "The Window Ventanas". Arratsaldeko 7etan, gazte-txean.

GOÑIRA IRTEERA

AEDko gazte mobidiek antolatuta. Abenduaren 27tik 30era. Prezioa 3.500 PTA. 16 urtetik 23 urte bitartekoentzatzat. Izenematea eta informazioa, 771228 telefonora dei eginda.

20 ASTELEHENA**GAUTXORIAK" LIBURUA-
REN AURKEZPENA**

Kurtzebarri Eskolako 8. mailakoek, "Gautxoriak" liburua aztertuko dute. Arratsaldeko 3etan eta 4etan. Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolan.

S. F. X. IKASTOLA BATZARRA

San Frantzisko Xabier ikastolak deituta. Arratsaldeko 6etan lehen deialdia eta bigarrena 6,30etan. Gazteluondoko batzar aretoan. Gaiak: aurreko batzar nagusietako aktak onartzearen informazioa eta batzar nagusi honetako akta onartzekoa. 92/93 ikasturteko memoria eta txosten ekonomikoaren onarpena, komeni bada. 93/94 ikasturteko gestio plana.

21 ASTEARTEA**EUSKAL LIBURU ETA DIS-
KO AZOKA**

Jostailuak erosteko aukera ere izango da. Goizeko 11etan zabalduko da. Sebero Altube plazan. Abenduaren 24 arte. Goizez 11etatik ordu 2etara zabalik, arratsaldeaz 5.30etatik 9etara.

IRAKURKETA MARATOIA

Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolako aretoan. Egun osoan zehar.

SANTAMASAK 93

Arratsaldeko 7etan Amaia antzokian Goikobalu abesbatzak eta San Frantzisko Xabier, San Viator eta La Merced ikastetxeetako haur abesbatzekin kontzertua. Amaia antzokian. Arratsaldeko 7etan, Monterron kultur etxean, "Arrasate 93" eta Jokin Zaitegi lehiaketan sari banaketa. Gaueko 11etan, Herriko Plazan dantzaldia, Joselu Anaiak taldearekin.

HITZALDIA

Egonaldi bateko pentsamen-
duak, (zer da Euskal Herria El Salvadorren. Zer da Guatemala Euskal Herrian) Hizlaria: Jon Sarasua. Aretxabaletako udal-
letzeko ganbaran, 7etan.

**MENDIKO DIAPOSITIBA
EMANALDIA**

Arratsaldeko 7.30etan. Oñatiko Kultur Etxean.

**"EUSKAL TRADIZIO-
AREN JAIK" ARGAZKI
ERAKUSKETA**

Monterron Kultur Etxean, abenduaren 26 arte. Egune-
ro 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik ordu 2etara eta 6etatik 8etara.

22 ASTEAZKENA**SANTAMASAK 93**

Goizeko 11,30etan azokan, sari banaketa. 12.30etan Zaldibar pilotalekuan, Santamas aizkolari txapelketa. Eguerdiko 1.30etan, Herriko Plazan, folklore talde guztien saio berezia. Arratsaldeko 7etan Amaia antzokian bertso saioa: Peñagarikano, Mañukorta, Lazkano eta Lopategi. Arratsaldeko 8.30etan, Larrain Dantza, Herriko Plazan. Gaueko 11etan dantzaldia Gaubela taldearekin.

23 OSTEGUNA**UMEENTZAKO TRENA**

Trena Aretxabaletako herrian zehar. Goizez 10,30etatik ordu 1era. Arratsaldeaz 4.30etatik 8etara.

HELDU DA NEGUKO FESTA: SANTAMASAK!**TRASTE HANDIEN ETA
ZABORREN BILKETA**

Arrasaten abenduaren 23an egingo da traste handien bilketa. Beraz abenduaren 22a izango da dei egiteko azken eguna. Abenduaren 24ean eta 31ean etxeetako zaborraren bilketa arratsaldeko ordubetan hasiko da. Ordutegi aldaketak ondorengo ibilbideetan izango du eragina: erdialdea, San Andres, Erguin, Uribarri, Loramendi, Garagartza eta Gesalibar. Zabor-poltsak betiko tokietara atera behar harko dira.

“Komunikabideak gizartearen elementu formatzaile eta hezitzaile izan daitezke; gure bizitzak hobetzen lagunduko duten lan-materialak eta erreflexioak aita eta amen, hezitzaileen, ikasleen eta abarren esku jarri egin dezakete hori. Komunikabideek errespeto eta tolerantziaren bidetik mundua zabal diezagukete.

Egunkari baten eguneroko bizitzan hori gauzatzeko, batez ere sentsibilitatea behar dela uste dut. Kazetariak eta medioek euren ‘albisteek’ gizartean, eta batez ere pertsona seropositiboengan duten eraginarekin jabetu behar dute. Zalantzak argitu eta beldurrak kentzen lagundu behar dute; ez horiek indartzen”.

Jon Salaberrik 93-12-1

egin

“Une hauetan euskal gizartean korritzen ari den frogan parte hartzeko entrenamendurik eza dagoela iruditzen zait (...) Euskadi Munduko Merkatuan ari da parte hartzen, eta bere prestakuntza ez da oso ona.

Jasaten dugun esklerosi sozial eta industrialak badu zerikusirik irakuskuntzaren estankamenduarekin edo egungo egoerara egoki moldatzen ez jakin izatearekin. Etapak erre, irtenbideak bizkortu nahi diren inpresioa dut eta ez gara konturatzen esperientziak esaten digula beharrezkoa dela ariketa egitea, norbere buruaren hobetze-prozesua prestatu, kompetiziorako mentalizatu. (...) Eta liderazgoaz ari garenez. Ez dakit, irakurle estimatu horrek, zer iritzi izango duzun, Aita Arizmen-diarrietak 1941etik 1976an Arrasaten hil zen arteko pentsamentua eta lana ezagutzen dituzun, baina nire ustez, bere mezua entzun eta bere jokaera erabiltzeak ere izugarri lagunduko lioke herri atsekabetu honi. (...) Hura ez zen errezeten lagun: alternatibak sortzen zekien. Konpromezuei ez zien ihes egiten: konpromezuak bilatu egiten zituen. Ez zuen inposatzen: komentzitu egiten zuen”.

Jose M^a Larrañagak 93-12-2


egin

Zergatik egin behar da Maltzaga - Urbina bidea?

Aspaldikoa da Maltzaga-Urbina bide-zatia egiteko asmoa. Beraz premia lehenagotik dator, 77. urtetik. Izan ere, azken 100 urteotan inguruko bideek ez dute berrikuntzarik ezagutu, hau da, komunikabide txarrak eta arriskuak ditugu. Ez da normala Bilbora joateko Kanpanzar pasatu behar izatea edo Madrilerako goazenean gehien kezkatzen gaituen bide-zatia Gatzagakoa izatea. Beraz, bidezatia ez egiteak ez garamatza inora. Guztion onerako izango den zerbaiten alde gaude; erosotasuna, seguritatea eta aurrerapen ekonomikoak ekarriko dizkigun zerbaiten alde. Hala ere, ezin da esan bide-zatia eginda ekonomiak izugarri hobera egingo duenik, baina ekonomia ondo joan dadin beharrezkoa da komunikabide sare onak edukitzea. Historiaren garapena ere beti egon da komunikabide sareen garapenez lotuta.

Debatea beginez ikusten dugu, beste iritziren bat dutenek puntu interesgarriren bat aporta dezaketela iruditzen zaigu eta. Horregatik NIPak ondo ikusten ditugu. Baina aurrez, nola egingo den ikertu ez denean, zuzenean zerbaiten aurka joatea nik behintzat ez dut ulertzen. Orografia zaila dugu inguruan, beraz, aurki ditzagun irtenbide tekniko onenak.

Gure ustez apostu ausartena, Maltzaga-Urbina egitea da. Bestela hemendik hogeitamar urtetara aurrerago egin ez genuelako damu egingo gara. Arrasatek eta orokorrean bailara guztiak, aurrerapena ezagutuko du komunikabide on batzuekin.



Jose Antonio Altuna
Maltzaga - Urbinaren aldeko plataformako kidea



LEHIAKETA PUBLIKOA

Udalaren titularitatekoak diren zenbait ikastetxe eta bulego garbitzeko zerbitzuak administrazio-emakida bidez esleitzeko dena.

Proposamenak aurkezteko epea **abenduaren 27an eguerdiko ordubatean** amaituko da.

Baldintza-plegua Udal honen Idazkaritzan azter daiteke bulego orduetan.

Arrasaten, 1993ko abenduaren 15ean
Alkatea

Butanoagatik Istripua

Joan den asteko ostegun arratsaldean nahiko istripu larria gertatu zen San Josepe kaleko etxebizitza batean. Sukaldean butano gasa pilatu zen antza, eta ezta-dak etxeko bi bizilagunak harrapatu zituen, biak bonbona aldatzekotan zebiltzala. Zaurituak, Eugenio Andres 72 urtekoa, eta bere alaba Rosa Maria Andres 27 urtekoa dira, eta nahiko erredura larriak izan zituzten, hirugarren mailakoak, buru, aurpegi, esku, beso eta hanketan. Larrien aita dago antza, eta biak Barakaldoko Gurutzetako erredura larrien atalean ingresatu zituzten.

Akordeoiaren asteburua

Kontzeziñoko zubian, soinu-joleen hiriburu izan zen Arrasate. Hiru ekitaldi paralelo izan ziren akordeoiaren inguruan: I. nazioarteko Arrasateko Hiria lehiaketa, Gipuzkoako Txapelketa eta Jaialdia. Nazioartekoan Pavel Feniuk soinu-jole ukrainiarrek irabazi zuen, aurretik beste lau bider ere munduko onena izendatu izan dutena.



Hemen Gaude taldearen zuzia

Joan den abenduaren 7an, Hemen Gaude ertzain-kolektiboaren zuzi edo pebeteroa Arrasaten izan zen. Ertzaindegiak dauden herrietan zehar zuzi hori egiten ari den ibilbidean Gipuzkoako lehen geldiduna izan zen Arrasatekoa. Zuzia Portaloian egon zen goiz osoan, eta Hemen Gaude-ren esanetan 2.000 sinadura batu zituzten arrasatearren artean, bakearen alde eta Joseba Goikoetxea ertzainaren hilketarengatik protestan. Zuziko suak abenduaren 19a arte segituko du bere bidaia, eta ondoren Gernikan geratuko da.

Gipuzkoako txapelketan, Marina Martinez irundarrak irabazi zuen haurren mailan; juniorretan Segurako Leire Arrietak eta seniorretan erdibana eroan zuten saria Irungo Iñaki Dieguez eta Iñigo Aizpeoleak. Jaialdian ere sari ugari banatu zituzten eta horietako bat Ines Osinaga soinu-jole arrasatearrari eman zioten.

Aretxabaletako alkate berria

Aretxabaletak alkate berria du astelehenetik. Aitor Antxia, Eusko Alkartasunakoa, da alkate berria, eta Arrasaten egiten du lan, San Frantzisko Xabier ikastolan. Orain arteko alkateak, Pedro Mendietak, arrazoi profesionalengatik utzi zuen kargua. Max

Center proiektuko zuzendaria ere bada eta. Zinegotzi izateari ere utzi dio Mendietak, eta Miguel Angel Delgado izango da Aretxabaletako korporazioko kide berria. Bozketan EAren aldeko lau botoak besterik ez zituen eskuratu Aitor Antxiak.

JAIOTZAK

- Francisco Rafael Cordero Murillo. Abenduaren 1ean.
- Brian Fernandez Santos. 1ean.
- Iosu Arizmendiarieta Narvaiza. 8an.

ESKONTZAK

- Roberto Aristi Narcue & Mari Carmen Larrañaga Galdos. Abenduaren 5ean. Elizaz.
- Juan M^a Zuazubizkar Zubia & M^a Teresa Vitoria Bolinaga. 4ean. Elizaz.
- Santiago Dosuna Gomez & Errose Elisabeth Mendicutie Ibabe. 4ean. Zibilez.
- Candido Muñoz Caceres & Sagrario Arabaolaza Ugarte. 11an. Zibilez.
- Jose Martin Arregi Ortubai & Edurne Mendietta Unzueta. 11an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Feliciano Aranzabal Laspiur. Azaroaren 30ean. 83 urte.
- Felicidad Alonso Mate. Abenduaren 5ean. 55 urte.
- Martin Aranguren Pagalday. 10ean. 73 urte.
- Primitiva Pueyo Espatolero. 14ean. 83 urte.




Elektrozailuak

ETXERAKO AUKERA GUZTIAK

Iturriotz, 21 ARRASATE Tfnoa: 79 03 84



JUAN MARTIN ELEXPURU*

Herriko euskeran eskribidu, zergatik ez?

Jende asko keizaten da gaurko gaztiak (eta ez hain gaztiak) ez gatz eta ez beratz daukan euskeria egitten dabelako. Ez herrikua, ez batua, ez inñungua. Gero eta nahastuago dago herri euskeria eta gero eta nekezago topatzen da, Deba arruan behintzat, bertako euskeria tajuz eitten daben jentia.

Eta pena haundixa da. Bertakua dakixenak eztauka bape probelemaik batura salto egitteko. Bixak ondo ikasi leizke, bertakua etxian, ikastolan (neurri baten) kalia, herriko komunikabidietan, erabiltzen bada, eta batua liburuetan, telebisiñuan e. a.

Berbetia ezta komunikatzeko bakarrik. Berbetan disfrutau be egin bihar da, jolas egin, bakoitza "etxian moduan" sentidu bere jardunian. Eta berbiak barru barrutik urtetzen doskunian, orduan arnasia bezelakoxia da, berezkua, naturala. Eta

hori txikittatik geureganduta daukagun berbetan dihardugunian pasatzen da. Eta "hika" bagabitz oinddio gehixago.

Baina gaur egunian berba egittia ezta nahikua, eskribidu be egin bihar da. Berrigara, ARRASATE PRESS eta beste errebista batzuk dauzkagu hemen, baiña gauza gutxi eskribitzen da bertako euskeran. Eta eskribidu egin bihar litzake nere iritiz, eta ez bakarrik txistiak. Danetik eta asko. Izan be eztauka sentidu haundirik gure aittajaunai egindako entrebistia batuan agertziak.

Bada jente bat hasiko litzakena, baiña atrebitzen eztana ohittura eta norma faltaz. Hau ikusitta biharrezkua litzake honekin konforme garen inguruko euskaltzaliok elkartu eta ikastarotxo bat gertatzia. Arauak ezarri biharko dittugu lenengo: "h" bai ala ez, kontrazi-

ñuekin zer egin, berba barrixak erabili ala ez, deklinabidia, aditza, e.a. Danondako balio daben norma batzuk jarri biharko die eta gero herri bakoitzeko berezitasunak errespetau.

Arrasaten esango neuke hasieratik gogo gutxi egon dala asunto honi adarretatik heltzeko. Hasierako Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garain elkarrizketak, nere txiste zutabia eta Karmele Zuzubiskar eta Koldo Zubizarretan baserrixak izan die alegin bakarrak. Frankotiradore lanak. Zuzendaritza eta erredakziño aldetik ezebe. Sekula etxako asunto honi inportantziaik emon. Herri komunikabidiei buruzko jardunaldi sakonak pe montatzen die, aurtan bigarrena, eta nik dakittenez ezta sekula ezponentzia ez komunikaziño eta diskusiño gai izan. Badirudi problemiak eztabela esistitzen.

Eta zenbaiti belarrira esan biha jako, oso fuerte, herriko euskeria eta batua eztiela kontrarixuak, errekatxua eta ibaixa ezten bezelaxe.

*IRAKASLE ETA IDAZLEA

(Azaroaren 16an Montorronen emandako hitzalditik hartua).

USTEAK USTE

KURIOSOA, TXOI!

Bart amets bat izan nuen. Egunero, gauero esan behar, egiten dut amets. Baina gaur gauekoa ezberdina izan da. Gutxitan gustoko izaten dituzun horietako bat. Benetan polita nik izandako ametsa.
Bai. Herri bat ginela izan zen nire ametsa, eta herri horretan ideia ezberdinetako jendeak zeudela.
"Horri deitzen diozu zorionezko ametsa?"
esango dit edonork. "Hori gutziz arrunta da, gizon! Non dago berezitasuna?"
Ba, herri horretan arraroa ikusi nuen gauza zera zen. Bertako jendeak elkarrekin hitzegiteko gai zirela. Eta hori, oso interesgarri eta polita iruditu zitzaidan. Eta ez didazu sinetsiko, irakurle adiskide, baina elkarrizketak gai ezberdinei buruzkoak ziren: berbaiek zituzten arazoetatik irteteko baliabideak, etorkizuneko egokien ikusten ziren aukera politikoak, gutziz zapalduak eta erdi galdurik zegoen beraien hizkuntza zaharra lurretik jasotzeko beharko lirakeen egunkariak eta beste komunikabideak, behar ziren erpepi-deak, ekologia, ... Pasada bat, txoi! Ezin sinetsi!
Eta amets horretan ikusi nituen pertsonak nahiko kuriosoak ziren, hitzegiteaz aparte, entzuten ere bazekitelako. Izugarria! Eta noizean behin, gainera, besteei entzun eta gero, norberak zituen arrazonomendua zalantzan jarri eta beste hizketakideei arrazoia ematen baitzieten.
Esnatzean gauza batekin ezin gogoratu, nahiz eta ahalegindu: Hitzegiten hastera nola lortu zuten. Lastima!

JOSE RAMON ELORTZA

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
 ARRASATE

MENDI
Taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Arrabala, 4
 Tfnoa: 79 20 54

LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
LIPOSUKZIOA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
 ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54



Plataforma Monterronen aurkeztu zen, manifestu batekin batera.

Herritarren Plataforma ardatz azkarra egitearen alde

Maltzaga-Urbina aldeko Deba Garaiko Herritarren Plataformak manifestu bat egin du publiko, abiadura azkarreko ardatz hau gure bailaratik egitearen alde. Plataforma eskualdeko jende ezagunez osatuta dago, eta manifestua sinatzen duten arrasatearren artean Alvaro Arregi, Joseba Arregi edo Jose Ramon Gorosabel daude.

Plataformako partaideek uste dutenez, Maltzaga-Urbina ardatz azkar bat egitea ezinbestekoa da Euskal Herriaren eta, bereziki, Deba Garaia Garapen Ekonomikorako. Egingo ez balitz, ordea, ekonomiaren kalterako izango litzatekeela diote. Proiektua azkar zehaztu dezatela eskatzen dute Plataformakoek beren idazkian, "beti ere eskualdeko eta eskualdez gaineko interesak ongien kontuan hartzen dituen trazaketaren arabera, ekologi eta ingurune-inpakturik txikienez, eta ekonomi eta gizarte-ikuspegitik ahal den finantzabiderik onuragarriena erabiliz".

Plataforma Arrasaten aurkeztu zen pu-

blikoki, eta bere partaideek ez zuten zehazterik nahi izan ea autopista ala autobia nahiago zuten. A-8ko peajearen luzapenez ere ez zuten komentariarik egin nahi izan. Administrazioaren iturriek, Roman Sodupe Gipuzkoako herri-lan diputatuaren ahotik, obra peajedun autopista izango dela eta A-8ko peajea ere luzatu egingo dela aurreratu dute, bestela ez dela ardatza eraikiko.

Hala ere, Plataformak Interbentzio Gune Partehartzaileen (IGP) alde egingo du, eta aurkezpenean esan zuten bezala, IGPen erabakiak errespetatzearen alde daude. IGPak, zortez aukeratutako herritar taldeak, datoren hilean hasiko dira biltzen Arrasaten.

Maltzaga-Urbina aldeko plataforma berriak izaera ireki, pluralista eta partehartzailea dauka, bere partaideek diotenez, eta proiektuaren aldeko ahalik eta jarrera gehienak bildu nahi dituzte, bai partikularrenak eta bai erakundearenak. Era berean "elkarriketatzeko eta elkarlanerako prest dago, administrazioarekin berarekin ere".

Gureskola elkarte

Gureskolak, Eskola Politeknikoko Lagunen Elkargo berriak, bere aurkezpen publikoa martxo-ra arte atzeratu du, baina barne antolaketa lanetan segituko du bitartean, eta bere buletina argitaratzen ere bai. Dagoeneko ehun bat bazkide bildu dira, eta elkarteak duen helburu nagusiak zehazten aldizkari bat plazaratu dute. Bertan diotenez, Gureskolaren funtsa Eskola Politeknikoari laguntzea da, bereziki Goi Injinerutza zikloari ekin dioten honetan. Horrez gain, ikasketak amaitu dituztenei lan esparrura ailegatzeko lagunduko die Gureskolak, ikasle ohien elkarte gisan.

Udaleko gastuak

Udaleko zerbitzu arloan bi ibilgailu berri erostea erabaki dute. Ur mantenuko zerbitzurako 230.000 PTAko Suzuki markako motor bat erosiko dute, eta brigadarako 2,8 milioi PTAko todo-terreno berri bat, orain erabiltzen den Land-Rover zaharra ordezkatzeko. Bestetik, hainbat jarleku publiko jartzeko erabakia ere hartu du udalak, gehienak herriaren erdialdean, baina inguruko auzoetan eta baserri auzoetan ere bai. Beste gastu batean, Gazte-tereko hornidura elektrikoa berritzeko eta komunak jartzeko 2,7 milioi PTA inbertituko ditu Udalak.



PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94

**PUB
HAIZEA**





Udaltxean mahai informatiboa jarri zuten langileen ordezkariak.

Zerbitzu publikoetan greba egin zuten ostegunean

Ostegunean greba egin zuten Arrasateko udal zerbitzuetako langileek, institutukoek, eta anbulategi eta eskualdeko ospitalekoek, gutxieneko zerbitzuak errespetatuz. OHoko Eskola publikoetan klaseak enab zituzten. Euskal Autonomi Elkarteko funtzionari eta gainerako langile publikoen greba eguna sindikatu guztiak konbokatzen zuten, arrazoi nagusi batengatik: Eusko Jaurlaritzak 1991. urtean lau urterako sinatutako konbenioa hautsi egin du, krisi ekonomikoa arrazoiatzat harturik.

Konbenio horretan soldaten igoera jakin batzuk zeuden aurrikusita, baina Jaurlaritzak jomalak izoztu egin ditu. Sindikatuek

diotenez, hala ere, grebaren motibo bakarraz ez da hori izan. Batetik, konbenioen funtsa baliogabetzen du administrazioak, eta bestetik Jaurlaritzak zenbait zerbitzu pribatizatu egin nahi dituela salatu dute sindikatuek. "Hiritarren arreta benetako arazo larrietatik desbideratu asmoz, administrazioak gizar-tea langile hauen aurka jartzeko ahalegin guztiak egiten ditu", salatzen zuten sindikatu guztiak agiri batean.

Ertzainen sindikatuek ere greba babestu zuten, baina kasu horretan, deialdiarekin bat egin arren, ez zuten geldiunerik egin, ezin dutelako grebarik egin. Postetxean eta INEM normal egin zuten lan.

LAB eta Lucio Garay SA

Lucio Garay enpresako langile talde batek agiri bat kaleratu du LAB sindikatua- ren jarrera salatuz. LABek enpresa horretako zuzendaritzaren jarrera salatu zuen, langile batzuen kanporaketa zela eta. Orain, langile talde honek zuzendaritzarekin elkartasun osoa adierazten du, beren ekintzak "enpresaren eta lanpostuen jarraipena" du eta helburu. Langile hauek salatzen dutenez, mehatxu egiteko telefono deiak ere egon dira, eta LABekoen jarrera "onar- tetzina" da.


Ferixalekuko lanak

Ferixalekuko ikastetxea ikastolaren beharretara egokitzeko lanetan, hasierako proiektuan hutsuneak zeudela egiaztatu dute teknikoeak. Orain ikastetxearen errefortzurako beste proiektu bat erredaktatzea erabaki du berriki Udalak. Bestetik, aurrera segitzen du epaitegian Udalak Hezkuntza sailari tartejarritako auziak, Ferixalekuaren desafektazioa lortzeko.



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFATEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



zortzi

GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE




ZENBAKI

Aholkularitza

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21

Krisiaren Aurkako Taldea eratu berri da

Herriak bizi duen egoera ekonomiko larriak bultzaturik, Arrasateko Krisiaren Aurkako Taldea eratu da zenbait talde eta pertsonaren artean. Talde hau, ostegunean eman zen ezagutzera Portalioian egindako kontzentrazio batean. Taldeak manifestu bat kaleratu du, Arrasatek jasaten dituen hainbat arazoren aurrean "zuzentasuna, elkartasuna eta borroka" aldarrikatuz. Arazoak "langabezia, enpresak ixtea, lan kaskarrak, giza pobrezia, gazteriaren etorkizun larria" dira, besteak beste. Krisiaren Aurkako Taldearen ustez, "arazoa ez da tza sortzeko gaitasuna handitzean (soberan baitago), bai zik eta zuzentasuna eta banaketa handitzean".

Bestetik, UCEM Korporazioak Arrasateko Cerrajerera eta Transformados Metalicos lan-



Cerrajerera eta Transformadoseko langileen kontzentrazio bat.

tegiak beste toki batean kokatzea proposatu die langileei. UCEMen proposamena zera litzateke: Cerrajerak Arrasaten dituen terrenoak saltzea, eta diru horrekin, enpresak beste nonbait jartzea, beti ere jabetza UCEMena izanik.

Edozela ere, Transformados eta Cerrajeraren artean 55 lanpostu inguru galduko lirateke. Langileen ordezkariak ez daude ados proposatutakoarekin, baina akordio batera iritsi dira UCEMekin, *consulting* batek urgentziazko plan

bat erredaktatu dezan bi enpresa horientzat.

Auzi honekin lotuta, CCOO, LAB eta ESK-k agiri baten kaleratu dute UCEM salatuz, "ondarean milaka milioi PTA eroan ditu eta, Arrasateko herriari ostuta".



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**Garaiko perretxikoak urte
guztian zehar!!**

RUTH GATZAGA

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE



- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76


ARRASATE



“Chica Almodovar” berri bat daukagu gure artean, eta gainera, arrasatearra da: Espe Urteaga. Dirudienez, Almodovar zine zuzendariari izugarri gustatu zaio bere aurpegia. “Kika” pelikula ikusten

baduzue... adi, Espe ikusiko duzue lehen plano batean eta. Zergatik? Espek ere ez daki, “in fraganti” harrapatu omen zuten Burgoseko herri baten filmea grabatzen ari zirela.

Egunkariaren aldeko tonbolan, **Agustin Altuna** eta **Idoia Zubillaga** arrasatearrak saritu dituzte. Bakoitzak 100.000 PTako saria jaso du. Agustinek Branka tabernan erosi zuen boletoa eta Idoiak Hilberan. Abenduaren 30erarte boletoak salgai egongo dira eta oraindik sari ugari geratzen da.



Gatzagako gatzak erosteko aukera izango da Santamasetan. Astoz helduko dira gatzagarrak herriko plazara. Hori bai, astoak San Andres auzoan itxoingo die, Gatzagatik

etortzea larregitxo izango litzateke eta. Zeramikazko dorla dotore batzuetan salduko dute gatzak. Urte guztian zehar grazia eduki nahi due-nak, badaki zer erosi!



comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84





Arabatik ekarri dute San-
tamasetako txerria. 280
kilo pisatzen ditu eta oso
jatuna denez, Arrasate-
ra datorrenerako hiru
kilo gehiago izango ditu.
Gesalibar auzoko Elizga-
rai baserrian dago orain.

Jadanik Atxabalpen, markagailua aldatzeko ez dituzte eskailera eta txapa pisutsuak erabiltzen. Roman Lopezen asmakizun honekin, emaitzak jartzeko nahiko da bi diskori buelta ematea. Arrasaten bakarrik dago sistema hau, baina beste batzuk kopiatzea nahiko dutela uste denez, Romanek segituan asmakizuna patentatu egin du.

Pilar Larzanguren ar-
duratzen da txerriari
jaten eman eta zain-
tzeaz.



IZEN PROPIOAK

● **Ane Miren Axpek**, 16 urte, arrasatearra, hilaren 26an Juan Arzamendiren omenez egingo den kontzertuan bibolina joko du. Ane-Miren Parisko Liceo espainiarrean 3.BUP egiten ari da. Honez gain Edward Wulfsonen maisu ezagunak, bibolin klaseak ematen dizkio.

● **Jose Luis Aristegieta**, 46 urte, Fagor Industrialeko gerente izango da aurrerantzean. Jose Luis donostiarra da, Euskadiko Kutxa eta Urkide finantz departamentuetan lan egin du. Jose Mari Ortubairen jubilazioaren ostean dator aldaketa hau.

● **Aitor Antxia**, 34 urte, Aretxabaletako alkate izendatu dute. Aitor atxabaltarra da eta San Frantzisko Xabier ikastolako maisu. Orain udaletxean ari da lanean, baina datorren hilean hasiko da berri ikastolan.

lurrindegia
Perfumeria

ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

Onduline

URALITA

TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE



MANGO

Postas, 5 eta 5 bis GASTEIZ

Tfnoa:(945) 23 04 48

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarren ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Golak eta emozioa

Kontzeziñoko zubi eta atsedenetik bueltan, benetan jardunaldi interesgarria izan dugu. Lider ziren bi taldek galdu egin zuten, alde batetik. Fosforosek 0-2 galdu zuen Mikelosekin, baina lehen postuan jarraitzen du C taldean. D Taldean, AC Surcosek 1-3 galdu zuen Zulusekin, eta kasu honetan zulutarrek lidergoa ostu diete bide batez. Atzekaldetik ere emaitza kuriosoak izan dira: adibidez, lehen-

biziko puntua, ondo merezitakoa gainera, lortu du Atxanta Ke Te Merece taldeak. Atzekaldetik zebilen beste talde batek, Euskal Indarrak, sekulako goleada sartu zion Ikatzi (12-5). 17 goleko beste partidu bat ere izan genuen (Argi Ibili 12 - Ooole 5), eta Betrayerrekin 11 gol egin zizkion Monterrey Zubi Beli. Gol ugari, eta jardunaldi emozionantea, beraz. Eta inorentzako zigorrak ez, gainera.

Etxeko
janari
bereziak

ONGI ETORRI BERRIRO!!

URRIN
EDARITEGIA

Urbarri Etorbidea, 22

Tfnoa: 79 95 24 ARRASATE

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	10	10	0	0	73	11	20
TRIKITI	10	9	0	1	53	13	18
ARLUTZ	10	7	2	1	41	16	16
JEY JULIWER	10	7	2	1	37	16	16
ZOTZ	10	7	1	2	36	32	15
SOKOAKOAK	10	7	0	3	41	33	14
ANBOTOSTE KT	10	6	1	3	28	20	13
BERANGO SUKAL.	10	6	1	3	34	20	13
UGLYS TXINATO	10	5	2	3	34	27	12
WHISKERIA LINDE	10	4	1	5	25	37	9
KOKKAS	10	4	1	5	29	28	9
BIZKORRAK AVE. T.	10	3	2	5	25	33	8
FRAGUEL GOL	10	2	2	6	20	29	6
AUF DEM KOFFER	10	3	0	7	20	40	6
ALLA KUIDAUS	10	3	0	7	23	46	6
IKATZ	10	2	1	7	32	57	5
RESAKAS	10	1	2	7	23	41	4
EUSKAL INDARRA	10	2	0	8	32	47	4
BAYERN LENITZ	10	2	0	8	14	49	4
ETXE MOBILIARIO	10	1	0	9	19	44	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	10	10	0	0	73	25	20
DANOK LAGUN	10	6	4	0	33	16	16
ZULOAK	10	7	2	1	38	21	16
ARR. KIROLAK	10	7	0	3	37	27	14
BUKANAK	10	6	1	3	38	19	13
LEINTZ GARAGAR.	10	6	1	3	43	17	13
TRONKOTEAK	10	6	1	3	32	28	13
ALPEN KRAUSSER	10	6	1	3	44	51	13
IRATI STS	10	5	2	3	38	21	12
BETRAYER	10	5	2	3	44	28	12
EXC. LETE	10	3	4	3	30	30	10
GANBELAS	10	4	0	6	31	37	8
DIEGO ANTONIO	10	3	1	6	28	33	7
OJO AVISORE	10	2	3	5	35	43	7
NOTXINGAN FLO.	10	2	3	5	30	42	7
FANCY BOIS	10	2	2	6	25	37	6
KOPYPREST	10	2	2	7	25	39	5
OOOLE	10	2	0	8	23	51	4
MONTERREY Z.B.	10	1	1	8	25	54	3
ATXANTA KE TE...	10	0	1	9	16	69	1

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	10	8	1	1	52	12	17
LOS HEREDIA	10	8	1	1	36	15	17
NABARROS	10	7	1	2	36	15	15
MIKELOS	10	7	1	2	33	18	15
ARR. KRISTALDEGIA	10	6	2	2	36	21	14
PEPELUS	10	6	1	3	43	22	13
KAKAJAURI	10	4	4	2	27	20	12
ADELAIDA HAIZEA	10	4	3	3	23	24	11
TXOKO TABERNA	10	5	1	4	22	22	11
MOTZ	10	4	1	5	30	27	9
LOS DALTON	10	3	2	5	35	39	8
HIREI	10	3	2	5	29	34	8
KIRTEN TROPEL	10	3	2	5	22	26	8
SIBILIUS ROVER	10	4	0	6	18	24	8
POTROSORRI	10	4	0	6	16	23	8
FOTO IMAGEN	10	2	3	5	23	32	7
BZK GANBELAS	10	2	2	6	27	32	6
BORROCKN ROLL	10	3	0	7	24	49	6
LEYA	10	2	1	7	24	56	5
CORINTO TABERNA	10	1	0	9	22	67	2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULUS	10	8	2	0	64	26	18
AC SURCOS	10	8	1	1	48	20	17
POTROAK LORATEGI	10	7	2	1	50	26	16
TOVARITX	10	7	2	1	38	21	16
TUTTIFRUTI	10	6	3	1	51	30	15
CARBUIROS	10	5	4	1	39	22	14
REVOLUTION ROCK	10	7	0	3	38	22	14
LASO ARREGI	10	6	1	3	27	29	13
FRANCISCANERR	10	6	0	4	49	34	12
KRISKIBALDA	10	5	2	3	39	29	12
NUEVO TABERNA	10	4	1	5	26	28	9
MACCABI DE LEV.	10	4	1	5	26	29	9
GURE LEKU	10	4	1	5	28	35	9
LOS DIMY	10	2	4	4	30	28	8
SOLANO 7 MARES	10	3	2	5	30	52	8
BODISCA	10	2	1	7	21	39	5
ILUNA TABERNA	10	1	1	8	23	61	3
KOAK LAIT	10	1	0	9	22	49	2
ELISABETH	10	0	0	10	20	58	0
EZKINAKO HONTZAK	10	0	0	10	18	59	0



LORATEGI
Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 790467



JOSTEKO
OIHALAK
Errekararren, 20
ARETXABAETA
Tfnoa: 79 80 90

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

**Monte
taberna**

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zembakidun Aseguru Artekarria
Arrisku gerentea
Boulevard, 11 5º-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

S.Z.O. F-95 erregistro Zka.
Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

BELARRIRA

◆ **Ondo igaro Gabonak.**

Asteburu honetako jardunaldiaren ostean, hurrengo bi asteburuetan (Gabonetakoa eta Gabonzarretakoa) ez da egongo futbitorik Zaldibarrren. Errege eguneko zubi eta asteburuaren berrekingo zaio txapelketari (oraindik ez dakigu ea 2 egunetan edo 4 egunetan zehar jokatu den orduan). Beraz, 93ari agur esateko garaia iritsi da. Antolatzaileek lerro hauetatik denei Gabon zoriotsuak eta urte berri on opatzeko eskatu digute.

◆ **Kanporatutako taldea.**

Gogoratu: Koak Lait taldea txapelketatik kanpo dago, baina harekin jokatu beharko luketenei beren aldeko 1-0 emaitza zenbatuko zaie markagailuan. Horregatik, gure emaitza eta tauletan Koak Lait-en emaitza "fiktizio" horiek segituko dute irteten oraingoz, eta lehen fasearen amaieran, kontuak berregin, zigorrak zenbatu (talde mordoxka bati puntuak kendu egin behar zaizkie) eta ikusiko dugu zertan den guztia.

Datorren asteburuan, Gabonetako oporren aurretik, partidu bat nabarmendu behar dugu batez ere. Argi Ibili - Zuloak, igandean 12etan Zaldibarrren, B taldeko derbi interesgarria, betidaniko kirol-arerio sutsuak diren bi talderen artean. C taldean, Adelaida-Haizeak Nabarroren aurka duen partidua azpimarrituko dugu.



EMAITZAK

A TALDEA

Fraguel Gol 5 - whiskeria Linde 5
 Etxe Mobiliario 0 - Jey Juliwer 4
 Berango Sukaldeak 2 - Resakas 2
 Auf dem Koffer 0 - Suministros Ugarte 7
 Anbotoste KT 1 - Uglys Txinato 3
 Alla Kuidaus 1 - Zotz 2
 Arlutz 4 - Trikiti 1
 Bayern Lenitz 2 - Sokoakoak 6
 Bizkorak Avenida Taberna 3 - Koxkas 2
 Euskal Indarra 12 - Ikatz 5

B TALDEA

Fancy Bois 1 - Tronkoteak 3
 Diego Antonio 2 - Irati STS 1
 Bukanak 2 - Leintz Garagardotegia 1
 Atxanta ke te merece 3 - Notxingan Florest 3
 Argi Ibili 12 - Ooole 5
 Alpen Krausser 1 - Zuloak 6
 Arrasate Kirolak 5 - Ojo Avisore 3
 Betrayer 11 - Monterrey Zubi Bel 1
 Danok Lagun 4 - Kopyprest 2
 Excavaciones Lete 6 - Ganbelas 1

C TALDEA

Kirten Tropel 0 - Potrosorri 1
 Hirei 0 - Los Dalton 2
 Fosforos 0 - Mikelos 2
 Txoko Taberna 4 - MZK Ganbelas 3
 Arrasate Kristaldegia 1 - Pepelus 2
 Adelaida Haizea 3 - Sibilius Rover 0
 Corinto Taberna 1 - Nabarro 8
 Borrockn Roll 2 - Motz 4
 Foto Imagen 1 - Los Heredia 3
 Kakajauri 5 - Leya 3

D TALDEA

Kriskibalda 4 - Tuttifruiti 4
 Franciscanerr 8 - Laso Arregi 2
 Elisabeth 0 - Maccabi de Levantar 3
 Bodisca 3 - Revolution Rock 7
 Iluna Taberna 1 - Tovarixtx 6
 AC Surcos 1 - Zulus 3
 Nuevo Taberna 3 - Solano 7 Mares 5
 Carbueros 2 - Potroak Lorategi 6
 Ezkiñako Hontzak 1 - Los Dimy 7
 Gure Leku 1 - Koak Lait 0

ADI!!!

Lehen 20 bezeroen artean, auto bikain hau zozkatuko dugu



GARAJEAKSALGAI

Amaia antzokiaren ondoan, Ferixalekuko parkean

Ez aukera hau galdu!!

Prezio harrigarriak

Informazioa eta salmenta: Tfnoa: 79 19 96 ARRASATE

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 18

Zaldibar

- 08.50 Hirei - Mikelos
- 10.00 Fancy Bois - Irati STS
- 11.00 Corinto Taberna - Motz
- 12.00 Adelaida Haizea - Nabarros
- 13.00 Gure Leku - Tuttifrutti
- 14.00 Atxanta ke te merece - Ooole
- 15.00 Arrasate Kristaldegia - Sibilius Rover
- 16.00 Kriskibalda - Laso Arregi
- 17.00 Franciscanerr - Maccabi de Levantar
- 18.00 Bukanak - Notxingan Florest
- 19.00 Euskal Indarra - Whiskeria Linde

Iturripe A

- 10.00 Fraguél Gol - Jey Juliwer
- 11.00 Kirten Tropel - Los Dalton
- 12.00 Alpen Krausser - Ojo Avisore
- 13.00 Bayern Lenitz - Koxkas
- 15.00 Diego Antonio - Lenitz Garagardotegia
- 16.00 Kakajauri - Potrosorri
- 17.00 Elisabeth - Revolution Rock
- 18.00 Foto Imagen - Leya

Iturripe B

- 11.00 Anbotoste KT - Zotz
- 12.00 Betrayer - Kopyprest
- 13.00 Bodisca - Tovarixtx
- 15.00 Excavaciones Lete - Tronkoteak
- 16.00 Auf dem Koffer - Uglys Txinato
- 17.00 Etxe Mobilario - Resakas
- 18.00 Borrockn Roll - Los Heredia

Igandea 19

Zaldibar

- 08.50 Arlutz - Sokoakoak
- 10.00 AC Surcos - Solano 7 Mares
- 11.00 Danok Lagun - Ganbelas
- 12.00 Argi Ibili - Zuloak
- 13.00 Fosforos - MZK Ganbelas

Iturripe A

- 10.00 Bizkorrak - Ikatz
- 11.00 Arrasate Kirolak - M onterrey Zubi Bel
- 12.00 Alla Kuidaus - Trikiti
- 13.00 Txoko Taberna - Pepelus

Iturripe B

- 10.00 Berango Sukaldeak - Suministros Ugarte
- 11.00 Iluna Taberna - Zulus
- 12.00 Nuevo Taberna - Potroak Lorategi
- 13.00 Carbueros - Los Dimy



Argi zuriak, argi laranja eta buru argitsuak

Gabonetako kale-argien 3 milioi PTako gastua polemika-gaia izan da udaletxean azken asteetan. Futbitoan ere badago zer kontatu argien inguruan. Sasoi honetan, berehala iluntzen du eta betatik aurrera ia gau egiten zaigu. Zaldibarko txapelketan, ordea, dauden partidu piloagatik, iluntzeetan ere jokatu behar izaten da, eta problema izaten da hori.

Iturripen argi zuriak daude, eta oso ondo ikusten da, baina Zaldibarren arazo serioagoak daude. Argi laranja daude, indar gutxikoak, eta pizteko sakatu arren, Grupo San Juaneko argiteria publikoa martxan jarri arte ez dira izotzen. Honek jokatzeko eta ar-

bitratzeko zailtasun handiak dakartza.

Zaldibarko antolatzaileek arazo hau konpondu nahi izan dute udalarekin negoziatuz. Iaz, superabita izan zuten, diru hori argi zuriak jartzen inbertitzea pentsatu zuten, baina udaletxetik, hori beren auzia zela erantzun zieten. Azkenean, udalak deskartatu egin zituen argi zuriak, besteak baino mila duro garestiagoak direlako, hiru bider gehiago kontsumitzen dutelako, eta total, bi ordutan jartzeko, ez omen duela lako merezi. Antolatzaileen ustez, "bi ordur bakarrak erabiltzen badira, ez da horrenbesteko kontsumoa izango, ezta?". Udaletxeko buru argitsuak kontuan har dezatela.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

● *Eukeni Olabarrieta*

Kirola eta osasuna

Lagun-Aroko medikua da Eukeni Olabarrieta, Deustuan jaio eta duela 25 urte Arrasaten bizi den osagilea. Berriki liburu bat kaleratu du "Deporte y salud" izenburupean, berak ondo ezagutzen duen arlo baten inguruan.

— Kontaiguzu apur bat liburuaren nondik norakoa.

— Eroskiren enkargu bat da. Kirolaren eta osasunaren arteko erlazioari buruzko liburu bat da, baina irakurle arruntei zuzendua, egunen batean egoera fisikoa eta osasuna hobetu nahi duen eta kirola egiten hasten den jendearentzat. Ez da liburu teknikoa, kirolari profesionalarentzat, ez. Osasunean zein faktorek eragiten duen aztertzen dut, eta era guztietako faktoreak dira: indibidualak, ekonomikoak, sozialak, politikoak, lanekoak... Batek esan dezake, "tira, politikoen baitan badago nire osasuna, zer egin dezaket ba? ezer ez!". Ba ez, egin daitezke gauzak bai, eta kirola da horietako bat.


— Kirola beti da osasuna?

— Liburuak ondo markatzen duen puntuetako bat horixe da. Atal bi daude, bata "kirolaren alde onak" eta bestea "kirolaren alde txarrak".

Gaur egun oso kezagarria den gai batean sakondu dugu: kirolarien bapateko heriotza. Asteburuko kirolari asko dago, astean lanean ari den gizona, erre egiten duena, gizona, eta igandeetan, ahal duenean, kirolean hasten da, eta jende horrengan du eragina bapateko heriotzak. Maratoi korrikalarien artean ere izan dira hildakoak. Gai hau sakon ikutu dut.

— Ez dago kirolagatik edo gorputzengatik obsesiorik?

— Horretaz ere badiot zerbait liburuan. Hemen modaren harian bizi gara eta amerikarrek zerbait modan jartzen badute, hemen ere segituan. Fenomeno kultural eta soziala da, eta gure gizarte moderno honetan kontsumismoan jausten gara sarri. Jendeak txandal jakin bat nahi duela, marka hau, etiketa hura. Horren etsaia naiz ni, baina badakit askotan ebitaiezina dela kontsumismoan, figurismoan eta etiketitzean jaustea. Gero badago jende asko, profesionala izan barik, kirolean buru-belarri murgilduta dagoena, kronoa hobetu nahirik obsesionatuta bizi dira, lehia gogorrean sartzen dira, ez besteekin bakarrik, euren buruarekin ere bai. Jende horrek lesio eta obsesio arazoak izaten ditu.



— Batere kirolik egiten ez duenari zer esango zenioke?

— Froga dezala eta kirola behar bezala egin ondoren okerrago badago, orduan bale. Baina, froga dezala besterik gabe.

— Etsenplu ematen duzue?

— Ez naiz kirolaria izan 37 urte egin arte. Orain, 23 maratoi ditut eginak. Lasterketa herrikoiak eta *mountain bike* ere bai. Ez dut astirik nahi nukeen kirol guztiak praktikatzeko. Normalean korrika egiten dut, astean hiruzpalau egunetan. Bela ere asko gustatzen zait, jendeak gauza eroso dela uste du, baina ez, lan asko egin behar da.

— Kirola egiten hasten de-

nak medikuarengana jo behar du?

— Ez naiz jendeak bizitza osoa kontsultan pasatzearen aldekoa. Horretan ere kontsumismo handia dago: froga sofistikuak, gero ezertarako balio ez dutenak. Baina, demagun, 45 urteko gizon bat, erretzailea edo kolesterol altukoa; honek nahitanahiez ikusi behar du medikua. Errekonozimendu osoa egin behar du. Kirol-medikuarengana joatea gomendatuko nioke jendeari. Horiek badakite zer begiratu behar duten.

— Badago kirol kulturarik Arrasaten?

— Hemen daramatzaten urteetan ikusi dut kirolak gero eta eragin handiagoa daukadalako jendearengan. Arrasatek atletismo eskola ona dauka, eta jende bikainak irten du hortik. Kirol federatua hori; maila amaterrean, uste dut badagoela gogor diharduen jendea. Komenigarria litzateke jende gehiago aritzea eta udalek gehiago laguntzea ere bai.

● **"Ez naiz kirolaria izan 37 urte egin arte. Orain 23 maratoi ditut eginak. Eta mountain bike ere egiten dut."**

Udalaitz, Arrasateko altxor naturala

Luis Fernandez

Udalaitzek, Arrasate gainean nagusi den haitz galantak 1.083 metro ditu altueran, eta herriko monumeturik "zaharrena" dela esan dezakegu: Behe Kretazikoan altxatu omen zen, dinosauroen garaian. Honezkero ez da biziko dinosauro edo dragoirik Udalaitzen, baina oraindik orain gure inguruan geratzen den ondo gordetako ingurune natural bakarretakoa da.

Eusko Jaurlaritzaren enkarguz berriki egindako ikerketa batek Euskal Autonomi Elkarteko interes ekologiko handiko ehun puntu inguru markatu ditu. Horietako 32 Gipuzkoan daude, eta horietako bat da Udalaitz.

IKP-2000 gabinetek egindako azterketa horrek nabarmentzen duenez, artadiak dira mendi honetako landaretza forma nagusi eta interesgarriena. Artea 700-800 metrora hazten da, eta handik gora landaretza baxua eta harria dira nagusi. Haritz bakan batzuk ere badaude (sasoi batean ugariagoak ziren), eta pinadi berriagoak ere bai. Landare desberdinen artean Euskal Herrian nahiko arraroak diren 19 espezie bitxi aipatzen ditu ikerketak.

Faunari dagokionez, ohizkoak izan daitezkeen zozo edo eskilarasoz gain, txori espezie arraragoak ere aipatzen ditu ikerketak. Udalaitzen habia egiten dutenen artean ditugu, adibidez, burdin-



Udalako partetik dauden artadietan ibilbide politak egin daitezke.

txori alpinoa (*prunella corallis*), berdantza (*emberiza cia*) eta mendiko tarina (*serinus citrinella*), azken hau konfirmatu barik.

Jaurlaritzarako egindako ikerketa horrek babestu beharreko interesguneen katalogoan sartzen du Udalaitz, baina horrek ez du esan nahi neurri berezirik hartuko denik. Erabili den metodologia natur parkeen nazioarteko batzordearena da, baina oraingo Jaurlaritzak edo Diputazioak ez dauka Udalaitzen eremu babestu berezirik izendatzeko asmorik. Hori bai, ehiza babeslekua jarrita dago Udala parteko maldetan.

KANPAZARKO HARROBIA

Beste aldeko maldan, ordea, Kanpazarko harrobi edo kantera daukagu. 1958. urte-


tik, Cantera de Campazar enpresak esplotatzen du haitza, eta orain ingurune inpaktoari buruzko txosten bat egin behar izan du, esplotazio baimenarekin segitzeko. SEIC enpresak egin du ikerketa hori, eta aste honetan bertan udaletxean egon da ikusgai, legezko agerpen publikoko epea betez.

Txosten luze batean, SEICeko biologoek harrobia beste 25 urtez erabiltzeko plana aztertu dute, ondoren esplotazioa eteteko hipotesian. Errepide eta obretarako harria ateratzen du, normalean inguruko herrietan egiten diren obretarako, eta hormigoia ere egiten dute bertantxe.

Ikerketa horrek ere artadia aipatzen du interes altuko puntutzat, eta harrobiaren ondoan halako artadi bat dagoenez, hori errespetatu egin

H

iru txori nahiko bitxiren habiak, 19 landare arraro, eta batez ere artadiak dira Udalaitzeko balio naturaletako batzuk.



Ingurugiro Eskolako egindako mendiaren maketa.

behar dela zehazten du. Beste inguru bejatal batzuei, belarrei eta txilar edo inarrei ez diete horrenbesteko garrantzia ematen, eta lanak hortik segi ditzaketela zehazten da. Artadia bera ere, ez omen dago oso egoera onean, eta kasu honetan ez da harrobiaren eraginez, ahuntzengatik baizik, seguru asko.

Harrobiak naturarengan dituen eraginaren artean, hautsa da bat, erreka-zuloak hondakinez zikintzea beste bat, eta paisaiarekikoa da ikerketak gehien nabarmentzen duena. Inpakto bisuala esaten zaio horri, eta hori ebitatzeko, landaretza-pantailak jartzea proposatzen da: ikusmira gordezko arbolak landatzea. Pantaila horiek hautsari eusteko ere balioko lukete. Errekazuloak ez zikintzeko, ordea, harrobiko ur guztia ondo kanalizatzeko plan bat proposatzen da.

25 urtean, hiru bider handiago egingo da harrobiaren zuloa, baina altueran gehiegi irabazi barik, zabaleran baizik. Gaur egunean, 512 metrotan dago harrobiaren oinarria, Kanpazarko bidegurutze eta tabernatik gertu, eta mendian egindako koska 642 metrorra iristen da. 25 urte barru, koskarik garaiena 710 metro-

tan egon liteke gutxi gorabehera.

INGURUGIRO ESKOLA

Nolanahi ere, Kanpazarko magala baino askoz ere interesgarriagoa da Udalakoa. Artadiak hobeto kontserbatuta daude inguru horretan, eta primerako parajea da natura hurbiletik ezagutzeko. Horrengatik, kokapen ezin egokiagoa dauka Ingurugiro Eskolak, Udalan.

Urtarrilean hiru urte beteko ditu Eskola honek. Batipat eskoletara begira egiten dute lan bertan lau lagunek, Kandi Fernandez dutela zuzendari. Hasiera batean, OHOk 3. mailako ikasleentzako egonaldiak antolatzen zituzten, baina gaur egunean, adin desberdinetako taldeentzat programak dituzte, iraupen desberdineko egonaldiak. Ingurugiro heziketa gero eta gehiago hartzen da kontuan ikas-tetxeetan, eta alde hori praktikarekin jorratzen dute.

Egonaldietan bi motatako ekintzak jorratzen dituzte: kanpoko ibilbideak (bereziki artadi ederra aprobetxatuz) ekosistemak, erreka eta baserri-bizitza ikusteko, eta barrukoak, Eskolaren egoitzan, laborategiko lanean eta ikusentzutekoekin. "Hasieran es-

kurtsio gisa etortzen ziren asko", esaten digu Kandi Fernandezek, "baina orain, etorri behar direnei bideo bat bidaltzen diegu, irakasleek gure aktibitateak jakin ditzaten, hemen egiten duguna ingurugiro-heziketa da eta".


Ikasturte honetan 900-

1.000 ume pasatuko direla uste dute, gehienak udaberrian pilatuta, logikoa den moduan. Uda sasoiari, auzolan-degi gisa eta udaleku moduan ere aritu izan dira, oso esperientzia positiboetan. Aurrera begira dituzten proiektuen artean, Arrasate-inguruetako natur-gida bat erredaktatzea da bat, ibilbide eta interesgune naturalen bilduma bat, bertakoek eta bisitariek disfrutatu eta apreziatzen jakin dezaten.

Ume eta gazteekin egiten den lan honen ondorioz, ingurugiroari errespeto gehiago izango ote diote belaunaldi berriek? "Ez dakit —erantzuten digu zuzendariak—, gure lana inportantea da, baina zaila da hiru edo lau egunetan kontzientziario hori lortzea. Hori bizitza osoko kontua da". Baina gaztetxoengan ardura utzi barik, hobe genuke denok Udalaizten dugun altxor natural hori hobeto ezagutu eta zaintzea.



Kandi Fernandez, Udalako Ingurugiro Eskolako zuzendaria.



Joseba Etxagibel, Txirrindulari Elkartekoa, eta Enrique Alonso txirrindularia.

Arrasaten izango ditugu munduko karreristarik onenak

Datorren urteko Euskal Herriko txirrindulari itzulia Arrasatetik irtengo da. Txirrinduzaleentzako aukera bikain hau prestatzen, dagoeneko herri-batzorde bat dago martxan.

94ko Euskal Herriko itzulia apirilaren 4ean hasiko da, astelehenez. Bezperan (apirilak 3, Aberri Eguna), frogaren aurkezpen ofiziala eta taldeen presentazioa Arrasaten bertan egingo da. Lehen etapa, Arrasaten hasi eta Arrasaten amaituko da, eta tartean herritik beste pasadaxo bat egongo da. 114 kilometro inguruko etapa izango da, labur samarra, bezperan Flandriako Tourra korritzetik etorriko baitira talde asko. 5ean, bigarren

etapa ere Arrasatetik irten-go da, eta Arabara abiatuko da, oraindik erabakitzeke dagoen helmuga batera. Irteera, helmuga eta stand ofiziala Abaroa jubilatutakoaren parean egongo da, Gari-bai kalean.

Irteera antolatzeko eratu den herri-batzordean, Txirrindulari Elkarteko, Udaletzeko, SUDC batzordeko eta Abaroa jubilatutako etxeko partaideek hartzen dute parte. Era berean, Arrasate Komunikabideek, ARKOk, partaidetza berezia izango du antolakuntzan. Batzordeko buruak alkatea eta Joseba Etxagibel txirrindulari elkarteko lehendakaria dira. Beste zenbaiten artean Enrique Alonso txirrin-

dularia ere badago. Prestakuntza soiletik aparte antolakuntza lanak eroango dituen 5,5 milioi PTAK finantzatzeko diru iturrien bila arituko da batzordea.

Antolatzaileen partetik, 8 txirrindulariako 18-20 talde espero dituzte. Karrera honek duen garrantzia ikusita, lehen mailako figura gehienak bertan izango ditugula gauza segurutzat jotzen dute: Indurain, Chiapucci, Jaskula... Baten batek kale egingo du, baina tropel bikaina izango dugu. Horrez gain, Euskadi Fundazioak, Txomin Perurenak zuzentzen duen euskal txirrindulari talde berriak, izango duen lehen konpromezu garrantzitsua izango da.

LABURRAK

Koadrilen krossa

Santamas jaien inguruan, Arrasate Atletiko Taldeak koadrilen arteko krossa antolatu du iganderako, hilaren 19rako. Kross herrikoi hau nahiko era bitxian korrituko da. Koadrila bakoitzeko lehen bost korrikalarien postuak neurtuko dira. Batzuek besteen gaintik abantailarik ez izateko, koadrila bakoitzean korrikalari federatu bakarrak eman ahal izango du izena. Nesken koadrilen-tzako saria ere egongo da: kasu honetan, koadrilako lehen lau postuak hartuko dira kontuan. Froga honetan parte hartzeko izena ematea doan da, eta sarien aldetik, lasterketako lehen sailkatu indibidualek izango dituzten garaikurrez gain, 1. koadrilak bildotsa eroango du, 2.ak lau untxi, 3.ak lau oilasko, eta 1. neska-koadrilarantz, beste lau untxi. Haurrentzako kategoria bat ere egongo da, baina haurren kasuan ez da koadrilaka korrituko, banaka baizik.

Saskibaloia Gabonetan

Koadrila arteko beste kirol kompetizio bat Arrasate Saskibaloi taldeak antolatutakoa da. 17. aldiz izango da gabonetako sariketa hau egingo dena. Abenduaren 21etik aurrera jokatuko dira partiduak, eta finala errege egunaren goizean jokatuko da Iturripen.

V. O. Version Original
General Alava, 16 - Tfnoa: 13 33 39 - GASTEIZ

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

BELARRIRA

● **Pelotako klub-arte-koan ez dago jada Arrasatearrik. Asteburuan senior bikotea kanporatu zuten azkoitiarrek, eta aurreko astean kadeteen bikotea kanporatu zuten, eta gainera Etxebarria aurrelariari atzamarra apurtu zitzaion. Euskal Ligara igarotzea lortu duen bakarra eskuz-eskuko jubenila izan da, Gipuzkoako klub-arte-koan 3. geratu denez.**

● **Denboraldiko lehen partidua galdu zuen Saskibaloitza Taldeak Iruñean Argal-en aurka. Baina, hurrengoan, larunbatean jokaturakoan, berriro lortu zuen garaipena Arabako Diputacion Foral taldearen aurka (87-69), eta hor dago 2. mailako bere taldeko lidergoan.**

Emaitza txarren bolada haustea lortu du Mondrak

Bi hilabetetan irabazi barik egon ondoren, Zornotzaren zelaian garaipena lortu zuen Mondrak joan den igandean (0-1). Emaitza horrekin, berriro positibo batekin jarri da Mondra, eta gainera, lehenbiziko partidua izan da golik egin ez diotena 11 jardunaldiren ondoren.

Aurreko asteburuan, Kontzeziñoko zubian, emaitza kaskarrak izan zituen Mondrak, eta Iñaki Zeziaga entrenatzaileak dagoeneko suerte txarra ezin aipa zitekeela esan zuen. Zornotzako partidua ostean, taldeak berriro gora egingo duelakoan dago Zeziaga.

Mondragon Futbol klubeko oinarrizko taldeen diruarazo ezagunak estaltzeko



Haurren taldeak kaleratu duen egutegia.

neurrien artean, talde bakoitzak bere egutegiak atera ditu. Egutegi bakoitzak zenbaki bat ere badauka zozketa baterako.

Horrez gain, porra bat antolatu da oinarrizko taldeentzat. 200 PTA balio du postura bakoitzak, eta orain artean sari bakarra egon da,

baina pilotutako boteen ondorioz nahiko handia izan dena (181.500 PTA banatu zituzten bi asmatzaileren artean). Porra hau ondoko tabernetan lor daiteke: Monte, Osorik, Txoko, Rumba, Avenida, Bueno, Estrella, Monterrey, Meneta, Alkaide, Atxabalpe eta Itxaso.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Zornotza 0 - Mondra 1
Emakumezkoak: Antonianos 1 - Arrasate 2
2. regionala: Gazteak 0 - Mondra 3
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 3 - Santo Tomas 1
Jub. 2. maila: Arrasate 14 - Eibartarrak 0
Kadeteak, 1. maila: Arrasate 3 - Bergara 4
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 3 - Ilintxa 2
Haurrak: Eibar 2 - Arrasate 12
Hurrengoak:
3. maila: Mondra - Gernika. Atxabalpe, igan., 15.30.
Federazio Kopa: Amurrio - Mondra. Mendizorrotza (Gasteiz), 24ean, 16.00.
Emakumezkoak: Urretxu - Mondra. Igan., 10.00.
2. regionala: Mondra - Segura. Atxabalpe, lar., 15.30.
Jub. Ohorezko Liga: Amaikak Bat - Mondra. Deba, lar., 15.45.
Jub. 2. maila: Urola - Arrasate. Zumarraga, igan., 11.30.
Kadeteak, 1. maila: Amaikak Bat - Arrasate.

Deba, igan., 15.45.
Kadeteak, 2. maila: Intxurre - Arrasate. Usabal, lar., 9.00.
Haurrak: Arrasate - Amaikak Bat. Atxabalpe, igan., 11.00.

Saskibaloia

2. maila: Arrasate 87 - D.F. Alava 69
Hurrengoak:
2. maila: La Salle Deusto - Arrasate. Deustua, larunbata, 18.30.
Sub-23: Politecnico A - Arrasate. Donostia, larunbata, 16.00.
Jub. mutilak: Lux Zarautz - Arrasate B. Zarautz, lar., 16.00.
Kad., neskek: Arrasate A - Juven Alza A. San Viator, lar., 12.00.
Kad., mutilak: Loramendi Kirolak - Ostadar. Musakola, lar., 12.00.
Almen - Arrasate B. Almen, larunbata, 16.00.

Rugby

Euskal liga, 2. m.: Arrasate 49 - Gaztedi 0

Jubenilak: Bera-Bera 0 - Arrasate 29
Neskek: Getxo 85 - Arrasate 0
Hurrengoak:
Euskal liga, 2. m.: Arrasate - Universitarios. Garagartza, lar., 16.00.
Jubenilak: Arrasate - Eibar. Garagartza, lar., 15.00.

Eskubaloia

1. eskualdekoa: Pasaitarra 24 - Arrasate 20
2. eskualdekoa: Usurbil 25 - Arrasate 17
Jubenilak: Bidebieta 21 - Arrasate 15
Hurrengoak:
1. eskualdekoa: Urola - Arrasate. Zumarraga, igan. 11.00.
2. eskualdekoa: Leitzarain - Arrasate. Andoain, lar., 15.15.
Jubenilak: Arrasate - Aloña Mendi. Iturripe, igan., 12.00.

Pilota

Gipuzkoako klub artekoa:
Senior, binaka: Arrasate 17 - Azkoitia 22

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

UGARTE
Industri
hornidurak
Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

OSORIK
PUB
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

● **TXOKO** ●
TABERNA
Cure berezitasunak
pintxo eta
mokau gozoak

Nola bizi dugu sexualitatea?

Askotan, uste dut, norberaren sexualitatea ez dela bere osotasunean onartzen, sexualitatea jenialitateaz nahasten bait da. Pertsona ederrak eta itsusiak daudela eta plazerra (eta "ligue" onak) ederrentzako direla esan izan zaigu.

Nire ustez, ordea, ongizatea eta gozamina norbere estimazioan datza eta ez gorpuzkeran. Gure gizartean oso gutxi dira bere buruarekin gustora bizi direnak (fisiko aldetik batipat).

Sexu heziketak eta harremanak norbere balioa topabidea izan behar du, maitasuna eta estima merezi dugula eta bete beteak garga ikasteko. Sexualitatea ez da "amodioa egitea" bakarrik, sexuarekiko dituen bizipen orokorrak baizik. Hau esanda, bi datu kezkarri aipatu nahi

dut:

Lehen: 15-19 urte bitartean dauden 1.000 neska gaztetik 18 haurdun geratzen dira.

Bigarrena: Sexu bidezko gaisotasunak, hau da, sexu harremanen bitartez zabaltzen edo kutxatzen diren gaisotasunak kasu guztien % 85a, 15 urtetik 30 urtera bitarteko pertsonengan agertzen dira eta kutxatuen kopurua gehituz doa etengabe. Gainera horrelako arazo bat edukiz gero, izkutuan gordetzen da normalean eta horrela erraztu egiten da gaisotasun horien zabalpena.


Hemen ikusten dugu sexu heziketaren beharra, neurri informatzaile eta prebentiboak ohizko antisorgailuak, kondoia, alegia, sexualki aktiboak diren gazteei bideratuak, sexu arrisku barik praktikat-

zen jarrai dezaten. Informazio gutxi dago eta horrez gain nahiz eta jendeak jakin nola ematen diren harreman sexualak, momentua heltzen denean oso erresponsabilitate gutxi erakusten da, hau da irrika sexualak gaintitu egiten du gure burua, nahiak asetzeari bakarrik pentsatzen da, bikotea kontutan eduki gabe eta ez dira antisorgailuak erabiltzen. Horregatik sexu heziketa ez da soilki sexuaren inguruan argitasun batzu ematea gaztearen pertsonalitate osoaren

formazio edo eraketaz arduratzea baizik.

Orain arte, nolabaiteko erreserba lotsati batek gaitz mintzatzean benetan egia esatea eragozten digu. Eta penagarria da, honegatik gertatzen baita gizon emakumeak gizakien arorik interesgarri eta ederrenetako bat behar ainako intentsitatez eta behar den alaitasunez ez bizitzeko edota aro hau inkonstzientzia, larritasun edo beldurrean galtzeko arriskuan egotea.

EUGENIO ITURRIOZ.



GOÑIRA IRTEERA

Abenduaren 27tik
30era
Matrikula: 3.500 PTA
Izen ematea
eta informazioa:
AEDn ☎ 77 12 28
**AEDko
Gazte
Mobidie**



Ekintza ugari,
mendia, jokoak
e.a.
16tik 23 urte
bitartean
bazaude eta
gabon egun
hauetan planik ez
badaukazu, guk
proposatzen dizugu
ederra.

BERTSOAK

Aste buruko istripuak

Egukari eta irratietan aste buruko berria egun hauetan istripu bidez jende mordo bat hil da elbarrituak beste mordo bat apurtu kotxe pillia neurritz kanpora ibiltzeak dakar ondoren tristia ez ditzagula jokuan jarri osasuna ta bizia.


Sasoia gainez, umore ona ezin kabitu herrian giro kaskarra egonagatik noranahi doaz kotxian beste gauza bat buruan sarri junagatik bolantian hildako edo helbarritun bat gertatuzten da etxian gurasoentzat negarra sarri bizi diran bitartean.

AGERRE

ZER NAHIAGO?

Delfina Blanco

Estetizista



- Azazkalak jaten dituzu? Ez.
- Depilatu duzu inoiz mutilen bat? Ez.
- Hiesak kezkatzen zaitu? Bai.
- Zenbat gradutan egoten da argizaria? 60 gradutan, gutxi gora behera.
- Depilatzea mingarria da? Bai, dudarik gabe.
- Zure seme-alabei kontaktzen zenien ipuinik? Bai, txikiak zirenean, bai.
- Eskiatzeko ohiturarik? Ez.
- Zeure burua makilatzeko ohiturarik baduzu? Bai, gustatzen zaiit.
- Zein kolorez margotzen dituzu ezpanak? Segun eta zein jantzi daramadan.
- Ostiraletan joaten zara azokara? Ez.
- Zer liburu duzu orain zure mesanotxean? "El clan del oso cavernario".
- Neguan etortzen da norbait solariumera? Oso jende gutxi, normalean ezkontzera doazen emakumeak etortzen dira.
- Zapata takoidunak edo takoigabeak? Azkenaldian takoigabeak erabiltzen ditut.
- Telebistako aurkezle bat? Iñaki Gabilondo.

**GABON HAUETAN ZURE
OPARIAK LORAMENDIN
LORAMENDI KIROLAK** 

**SKIA - MENDIA - ZAPATILAK -
TXANDALAK - FORRO POLARRAK -
TXUBASKEROAK...**

DENA KIROLETARAKO!

Jose Vidal, "Tornillo"

Mimo gor baten artea

Inork ez du Jose Vidal ezagutzen, baina "Tornillo" bai. Txikitatik gorra da, eta hitzegin dezakeen arren, elkarriketa egiten ari garen bitartean, esfortzu berezia egiten duela nabaritzen da. Bere ezintasunak sortzen dion lotsa apur hori, ezenarioan galtzen du.



"yonki" baten bizitza pausoz pauso heriotzera heldu arte. Dena den, saio asko inprobisatu egiten ditut baina beste batzuk, etxean nagoela bururatzen zaizkit eta paper batean idazten ditut azkar azkar.

— Jendeak zer impresio jasotzen du?

— Ez dakit, baina nire lehen aktuzioan barre asko egin zuten ni ikustera etorri ziren 150 pertonek; orain barre baino gehiago, txalo egiten dute.

— Non ikasi duzu mimoa egiten?

— Peter Roberts mimoarekin egon nintzen hilabete batez, baina ez nuen ulertzen eta utzi egin nuen. Orain 4 hilabetetako ikastaro bat egiten ari naiz Donostian bertako mimo batekin. Ikastaroa bukatzen dugunean, obra bat antzez-

tuko dugu.

— Nola ezagutu zenuen Peter Roberts mimoa?

— Telefonoz hotsegin nion eta berarekin ikasi nahi nuela esan nion. Aretxabaletan mimo saio bat egitera zioan eta hura ikustera joateko esan zidan. Horixe egin nuen, jendeak alde egin zuenean, han geratu nintzen eta ezagutu egin nuen.

— Zer jantzi erabiltzen duzu?

— Normalean, eszenatokian maila beltzak, kamiseta beltza, zapatila zuriak eta aurpegia zuriz margotzen dut.

— Zein izan da zure azken aktuzioa?

— Abenduaren 11n Gaztetxean Belen Bragadori egindako omenaldi batean antzezutako mimo saio bat. "Torni Show" zuen izena saioak.

— Gorra izatea ez da muga?

— Ez. Nik jendearen ezpanak irakurtzen ditut eta astiro hitzegiten duten bitartean, ondo konpontzen naiz; gainera, mimoa egiteko, ez dut ezer entzun beharrik, ezta hitz egin beharrik.

LABURRAK

Ipuin Hilabetea Eskoriatzan

Nork ez du Koldo Amestoy ezagutzen? Umeen artean oso ezaguna da, baina zuk ere ezagutu nahi baduzu, aukera ederra duzu. Abenduaren 17an izango da Eskoriatzako Kultur Etxean. Koldo Amestoy ipuin kontalaria da, eta inork baino hobeto eta inork baino keinu gehiagoz, ipuin zoragarri bat kontatuko dizu. Gaueko 22.00etan izango da hori; gonbidatua zaude.

AEDko literatur lehiaketako finalistak

Poesian: Nuria Coscojuela, Lorea Arantzeta, Larraitz Ugarte, Iñigo Iñurrategi eta Jose Luis Goenaga. **Ipuinean:** Mireia Olabe, Leire Lardizabal, Itziar Larrañaga, Marta Gomez, Amaia Alberdi, Eider Zumalde, Ruben Beitia eta Diego Martiartu. **Bertsoetan:** Ekhiñe Landa, Tamara Irizar, Ane Atxotegi, Saioa Arando, Asier Etxaniz, Danel Goikolea eta Amaia Agiriano.

Diapositibetan: Antonio Murillo eta Joseba Elorza. **Argazkilaritzan:** Karmelo Uribarren, Rosi Zarragoa eta Miren Edurne Elvira. **Komikia:** Jon Alvarez, Jon Alberdi eta Aitor Lodoso.

mokasin
Zapatak eta osagarriak
Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

ZUBIZARRETA
TAILERRAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65


GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

“Santamasak 93” argazki lehiaketa

Santamas jaiek biltzen dituzten ekitaldi guztiei, bat gehiago bildu beharko zaio aurrerantzean. Santamasetako Komisioak eta ASA taldeak antolatuta, argazki lehiaketa antolatu da aurten bigarren aldiz. Gaia, “Santamasak” izango da eta argazkien formatoa, gutxienez 18 x 24koa eta gehienez 30 x 40koa. Partaide bakoitzak 3 argazki guztien eta 5 gehienez aurkeztu beharko ditu. Lanak aurkezteko epea, 1994ko urtarilaren 11n bukatuko da. Argazkiak, Laso-Arregi, Epelde, Ikatz, Iosu edo Imagen argazki dendetan utzi beharko dira. Sari banaketa urtarilaren 14an izango da, eta egun berean, Monterronen erakusketa zabalduko da aurkeztutako argazki guztiekin.

Juanito Arzamendiren omenaldia

Abenduaren 26an Juan Arzamendiren omenez kontzertua izango da Amaian. Eguerdiko 12etan, Edward Wulfson eta Ane Miren Axpe biolinistek emango dute kontzertua. Bigarren kontzertua arratsaldeko 7etan izango da, Letoniako orkestrak, Edward Wulfson eta Ane Miren Axpe biolinistek eta Ainhoa Arteta sopranoak parte hartuko dutelarik. Sarrerak abenduaren 21an jarriko dira salgai Mendi tabernan eta Amaian. Prezioa: 3.500 PTA. Arrasate Musikaleko bazkideentzat aurrez 1.000 PTAn.



Azoka plazan baserriko produktuen lehiaketa goizango da Santamas egunean.

Santamasak 93

Badatoz, hemen daude berriz ere Santamasak. Festa honek maizter-nagusien arteko ohitura gogoratzen digu, urteko etxearia hegaztiez ordaindu beharra, aintzinako ohitura lege bihurtutakoari jarraituz. Dena den, festa hau ez da baserri giroan oinarritutako festa bakarrik; kale-etxe sarietan ere auzkitzen dira festa honen ospakizunak eta.

Santamasetako egitaraua oraindik esku artean ez baduzu, jarraian aurkituko dituzu ekitaldi garrantzitsuenak. Inoiz ez bezala, abenduaren **17an** emango zaie hasiera Santamasei **22.00etan** Amaia antzokian izango den **Ruper Ordorikaren** kontzertuarekin. Larunbatean, **abenduak 18, goizeko 10etan** Iturripe Pilotalekuan, “**Santamas**

XVI. Pilota Txapelketako Finala” jokatu da. Gau aldera, berriz, **rock jaialdia** egongo da Musakolan **Lin Ton Taun, EH Sukarra** eta **Def Con Dos** taldeekin.

Abenduaren 21ean, asteartean, Euskal Liburu eta Diska **Azoka** zabalduko da Sebero Altube plazan, eta arratsaldeko 7etan, Santamasetako txerriaren aurkezpena eta zozketa-txartelen salmentari ekingo zaio. Gaueko 11etan **Joselu Anaiekin**, dantzaldia egongo da Seberon. Gaueko 12etan eta ohiturari eutsiz, **zezen-suzkoa** Herriko Plazan.

Santamas egunean, abenduaren 22ak, batuko ditu ekin-tza garrantzitsuena: goizeko 10etan, **fruitu, barazki, hegazti, untxi** eta Euskal Herriaren eskuz egindako **gazten lehiaketari** hasiera emango zaio. Ordu berean baina Zaldibar inguruan, joan den ur-

tean burutu ez zen Eskualdeko Ganadu Lehiaketa ikusgai, eta 13.00ak aldera **Gibitegi** Arrasateko bolo-harria jasotzen errekorra hausten saiatuko da. 14.30ak aldera berriz, **Herri Bazkaria** egongo da Musakolan eta 7etan, **Peñagarikano, Mañukorta, Lazkao** eta **Lopategik** sekulako **bertso saioa** eskainiko dute. Gaueko 12etan Santamasetako txerria zozketatuko da.

Abenduaren 24ean amaituko dira Santamasak eta **Olentzerori** ongietorria emango diogu. Goizeko **12etan** aterako da **Txoronio** eta herriko kale guztietatik pasatuko da umeen gutunak jasotzeko. Olentzero, berriz, arratsaldeko **6etan** irtingo da. Azkenik, eta Santamas hauei behar den moduko agurra emateko, mutil-dantzaz eta herri-dantzaz agurra emango diogu Olentzerori.

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

**HAURTOKO**
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

BLUSAS OSAGARRIAK POLTSAK
XAHO
ANGELA UNZUETA
Novecento eskulibran
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ



1955eko Santamasak. Lehen saria, Olia.



1959ko Santamasak. Oliako barazkiak.

Santamasak edo Santo Tomasak, herriar askok esaten duen moduan. 1955 eta 1959ko saritu biren erakusketak dira argazki hauetan ageri direnak. Goikoan, Lehenengo saria jaso zuen **Rufina Gallastegi Markaidek**, Olia baserrikoak. Bere alboan **Benjamin Arce** dago, garai baten municipal eta ondoren enterradore izandakoa. Erakusketak ikusgarri hori otzara handi baten gainean, ikusten den bezala.

Lau urte beranduago ere Oliakoan lehen saria jasotzen du erretratuak, dena berduraz osatutako erakusketan. Begira daudenak, ezkerretik hasita, **Iñaki Markaide**, **Lola**, trenaren estaziñoko Jefearen andrea eta herrian oso ezaguna, **Pilar Gallastegi**, **Maria Jesus Artola**, **Espe Lizarralde**, **Maria Bergaretxe**, **Blanca Uranga** eta **Garbiñe Ortu-bai**, ezagutu ahal izan ditugunen artean. San Frantzisko aurrekaldeko azoka plazan ateratakoak dira erretratu biak.

Sasoi hartako Santamasetan ohitura bereziak ziren: Oraintsu arte etxe askotan iraun duena, gonbidautza izan da. Egun izentatu horretan baserriar asko etortzen zen kalera, eta euria ere askotan egiten zuenez, Erdiko kaleko **"Nikas Txiki"**ren dandan guardasola erosita joaten ei zen baserriar asko etxera. Bestelako erosketa asko ere Santamasetarako uzteko ohitura handia zen Mondrauen.

Dantza ere izaten zen: arratsaldean Biterireneko jardinetan, trikitixak eta horrelakoak, jendea gainezka; gauean azoka plazan, **"Berduling danzing"**(?) izenaz ezagutzen zen dantza, berdura plazan izaten zelako.

Hamabostean behingo feriara bezala, "txarlatan" ugari etortzen zen Santamasetan ere, mantak, orraziak eta antzekoak saltzera.

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

RK^UZ

Sukaldeak

FAGOR 

Sukalde integratuak

Banatzaile Ofiziala

Mitarte, 3

Tfno-Fax: 77 04 55

ARETXABAleta



ALTZARIAK

ETXEKO ALTZARIAK
DISEINUA - APAINKETA

Araba Etorbidea, 20
Tfno - Fax: 79 23 51

ELEKTROGAILUAK

TV - BIDEOA - SOINUA
expert  Banatzaile ofiziala

Asuncion, 1
Tfnoa: 79 10 97


Aretxabaleta

• AIPUA •

“Idealik gabe bizi izatea erdizka bizi izatea da.”

GOETHE

• JEROGLIFIKOA •



Jeneral euskaldun baten sorteria

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8		9				
10		11				
12					13	14
15				16		
17					18	
19					20	

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Banatzearen egin-tza. 8. Zilarra. 9. Heldu. 10. Fernando, atletismoko entrenatzaia. 12. Liberalek karlistei ipinitakoa. 13. Nobelioa. 15. Jela-tu. 17. Liseriketa. 19. Eusko Langileen Alkartasuna. 20. Ez eme.

Bertikalak 1. Elkarte batetako kide. 2. Udaltzain. 3. (Ald.) Kanpai. 4. Usain oso txarra duena. 5. Gaixo. 6. Asiako mendiak. 7. (Ald.) Sodioa. 11. Aproba. 14. Bakazio. 16. Alde hemendik. 18. Kasik.

• HOROSKOPOA •

Aries Hasi gabonetako oparientzako diru pixka bat aurreratzen.

Taurus Zure hagineta nabaria da erretzaile porrokatua zarela.

Gemini Maisuren batek ezkerreko begitik hartu zaitu, baina berdin dio.

Cancer Ez duzu inoiz ikasiko jatorduetan pertsonak bezela portatzen.

Leo Gaurko haserrealdia ez da ezer izan, lagun izaten jarraituko duzue.

Virgo Atsoak baino txarragoak zarete. Beti elkarrri belarrira kuxkuxeatzen.

Libra Orain kirola egiteko obsezioa sartu zaizu eta horretan bakarrik pentsatzen duzu.


Scorpio Ez al dizu inoiz inork esan barregarria zarela?

Sagitaris Hainbeste lan egitea ez da batere ona. Hartu deskantsu pixka bat.

Capricorn Ahoa itxi ezazu maiteari begira ari zatzaizkionean.

Aquarius Ez ezazu buruan darabilkizun astakeria hori egin.

Piscis Handi ustea duzun arren, ez zara ezereza besterik.




Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE

• JOSU OTADUYREN GOMENDIOA •



Orain urte asko hasi zen Josu euskaraz irakurtzen, Zeruko Argiako harpidedun egin eta alfabetatzeko bidean astero irakurtzeari ematen zionean. Horixe da bere gomendioa: euskara lantzeko egunero Euskaldunon Egunkaria irakurtzea gomendatzen digu. "Norbere euskara hobetzeko ez dago ikastolara joan beharrik. Nahikoa da egunero egunkaria irakurri eta horrela trebatzea". Ez da gomendio txarra, bidebatez informatuta egotea lortzen da eta.


• PROGRAMAZIOA •




ARRASATE

- 19 Igandea**
20.00etan
Astebete (errep.)
20.30etan
Mondragol.
- 20 Astelehena**
13.35eta
Mondragol errep.
14.05etan
"Rambo" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
"Polizia akademi eroa III."
- 21 Asteartea**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35
Mondrasport errep.
14.05etan
"Polizia akademi eroa III."
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan Berezia
22.00etan
Dokumentala: "Animali Erreinua"
- 22 Asteazkena**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Atbketan errep.
14.05etan
Dokumentala errep.
20.00etan
Santamas Programa Berezia
22.00etan
Pelikula Erraldoia: "Robokop"
- 23 Osteguna**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Santamas Programa Berezia (errep.)
14.05etan
Robokop errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Jose Mari Gorordo
22.00etan
Euskal Filmea: Zergatik Panpox
- 24 Ostirala**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Bakarka errep.
14.05etan
Santamas Programa Berezia
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren eguna: "Mafalda"

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •



EGVZKIGRAF
Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburusak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Zegama.
JEROGIFIKOA
Na. 11. Froga. 14. Opor. 16. Ur. 18. 1a.
3. Ezkila. 4. Kitaris. 5. Eñ. 6. Tian. 7.
Bertikalak 1. Bazkide. 2. Aguzti.
Ar.
15. Iozitu. 17. Digesto. 19. ELA. 20.
Litin. 10. Zutitza. 12. Karka. 13. No.
Horizontalak 1. Banaketa. 8. Ag. 9.
GURUTZEGRAMA

Etxebizitzak

• **Injinariatzako hiru ikasle etxebizitza** bila Arrasaten. Mesedez, azkar-azkar deitu. Tfnoa: 79 41 69.

• **Etxebizitza saltzen da Gasteizen.** Erdialdean. 130 m². Berriztea behar du. Tfnoa: (945) 13 07 27.

• **Gela bat bi oherekin** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.

• **Apartamentua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta kalefakzioaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gauez deitu. Luis.

• **Donostiako Gros auzoan** neska bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Tfnoa: 29 32 90.

• **Aretxabaletan bi logela** alokagai, sukalderako eskubideaz. Tfnoa: 79 04 62.

• **Laukalen, Roneoko etxeetan,** 16,5 m² garaje itxi bat alokatzen da. Lehenengo pisuan. Tfnoa: 79 18 95.

• **Lokal bat salgai.** 85 m². Elkano kalean, 4. Tfnoa: 79 19 99. Manuel Bouzon.

• **Etxebizitzan amueblatua salgai** Bergaran. Artekale, 16 -1^o. Tfnoa: 76 12 81.

• **Familia batek logela bat eskaintzen du.** 2 ohe, eroso, ikasle edo langileentzako. Pentsio erdia edo osoa, aukeratzeko. Jose Luis Iñarra Pasealekua, 25 - Behea, B. Tfnoa: 77 06 87. Rosario.

• **Etxebizitza alokatzen da** guztiz amueblatua. Helbidea: Maalako Arrabala, 21 lehen. Tfnoa: 79 47 17. Deitu 8,00etatik aurrera.

• **Urbe auzoan garajea** eta traste-lekua salgai. Deitu 77 13 02 tfnora.

Lana

• **Lanak ordenadorez pasatzen ditut.** Dei egin 1etatik 3etara 79 77 59 tfnora. Fernando.

• **O.H.O.ko klase partikularrak ematen ditut.** Sonia. Tfnoa: 79 30 15.

• **O.H.O.ko klase partikularrak ematen dira.** Gaueko 9etatik aurrera dei egin. Tfnoa: 79 08 08. Ainara.

• **Andre euskalduna etxeko lanak** egin, umeak zaindu edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.

• **Esperientziadun neskak** etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke goizez. Tfnoa: 77 06 25. Deitu eguerdian eta gaueko 9,30etatik aurrera.

• **"Flauta trabes" jotzaileak** musika zein flautazko klaseak emango lituzke. Animatu! Tfnoa: 77 06 25. Miren. Deitu eguerdian eta gaueko 9.30etatik aurrera.

• **Unibertsitariak asteburuetan** OH.O.-ko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 34 58.

• **Gabonetako oporretan frantsesezko klase** partikularrak hartuko nituzke. Dei egin 79 99 82 tfnora. Miren.

• **Ingeleseko klase partikularrak** hartuko nituzke. Tfnoa: 71 41 14. (Hobeto natibo edo lizentziatua balitz).

• **Zure aulkia hondatuta baduzu,** lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Dei egin 79 15 96 tfnora.

• **O.H.O.ko klase partikularrak** emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.

Salerosketak

• **1200 kg. tarako furgoneta** erosten da. Interesatuak dei egin BAGUK-era. Tfnoa: 79 81 99.

• **FAGOR markako litroko termua** salgai prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.

• **Labadora salgai.** Egoera onean eta prezio interesagarria. Tfnoa: 79 22.86. (egun guztian zehar).

• **Coolie arrazako txakurrak** salgai. Tfnoa: 76 64 83. Xabier.

• **Salgai Bideo kamara** CCD-V 200 E SONY. 5 lux. Zoom 8x. Audiodubing. Titulazioa. Tfnoa: 79 71 57. Tomas.

• **Eskiatzeko botak salgai** (KOFLACH 850) Zortzi egunez erabiliak. 25.000 PTA. Tfnoa: 79 29 92. Asier.

• **Kotxe telegidatua** bat saltzen dut eta honekin batera, walkman bat oparizat. Tfnoa: 79 58 25. Javier Vargas.

Saltgai:

- Aluminiozko porta-skiak GOLFau toarentzat 5.000 PTA.
- Porta-txirringak. 6.500 PTA.
- Gurpilentzako kateak. GOLF tipokoak. Juanjo Iza. Tfnoa: 79 52 45. 8,30etatik aurrera.

Denetarik

• **Urrezko pultsera aurkitu dit.** Izena eta data ageri dira. Tfnoa: 79 23 67.

• **Urrezko pultsera aurkitu dit.** J. C. Gerra Plazan. Lan orduetan deitu. Tfnoa: 77 03 80. Aloña.

Aste Gazte

Lanpostuak

• Gipuzkoako Diputazioak ondoko lanpostu hauek betetzeko deialdia egin du: goi mailako teknikaria kirol instalazioetarako, geoteknikariako erdi mailako teknikaria, gazteriako goi mailako teknikaria, administrazio orokorreko 4 teknikari eta 40 administrazio laguntzailerak. Epea: abenduak 24.

Bekak

• 94-95 ikasturtean Eskoziako Unibertsitateetan

ikasteko bekak. Ingelesa menperatzen duten 25 urtetik beherako lizentziatu nahiz karrerako azken ikasturteko ikasleei zuzenduak. Epea: urtarrilak 27.

• 94-95 ikasturtean Juan March institutuko giza zientzietako zentruan ikasteko bekak. Ingelesa menperatzen duten goi mailako tituludun nahiz karrerako azken ikasturteko ikasleei zuzenduak. Dirulaguntza: hileko 120.000 PTA. Epea: otsailak 28.

Sexualitate tailerrak

• Begiraleei zuzendutakoak, Ozaetan abenduaren 28tik 30era. Alojamen du eta mantenu gastuei aurre egiteko 1.600 PTAko kuota finkatu da.

Lehiaketak

• Arrasateko Haratuzteak iragartzeko kartel lehiaketa. Sari bakarra: 50.000 PTA. Epea: urtarrilak 14.

• Santamasak-1993, argazki lehiaketa. Zuri-beltz edo kolorez. Epea: urtarrilak 11.

"...zeren eta oroimenera, haurtzaroko ganbarara bezala, ilunpean igotzen baita".

TERESA AROCENA
("POR LOS RÍOS VA EL NAVÍO")



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

ELKORO expert



TB - BIDEO - SOINUA - LANPARAK - BAZARRA
ZERBITZU TEKNIKOA

Gipuzkoa Etorbidea, 6 (Legarre Pabilioian) Tfnoa: 79 10 37 ARRASATE
 Olarte, 20 (Monterronen parean) Tfnoa: 77 08 28 ARRASATE

SONY FMHC-510
Minikatea
 Compact-disk eta 2
 pletinakoa
 2x25 W. RMS



59.900
PTA

PHILIPS
 20 PT-150
 20"takoa
 Teletestoduna



54.000
PTA

GRUNDIG
 M-1 Minikatea KD eta
 2 pletinakoa
 2x12W



39.900
PTA

DAEWOO
 ACR-3050
 Irratikaseta
 AM / FM



2.950
PTA

SAMSUNG
 RCD 1365 Compact-disk eta
 2 kasetekin



23.500
PTA

NOKIA
 3603 mod.
 2 Kabezalekoa



39.900
PTA

3643 mod.
 4 kabezalekoa

49.900
PTA

SONY
 KV M-1400
 Telebista
 14"takoa



39.900
PTA

MOULINEX
 ASPIRADOREA
 210. mod.
 Erregulatzailerekin
 1200 W.



14.500
PTA

TEFAL
 ULTRAGLISS
 20



4.900
PTA

FAGOR
 Batidora



3.975
PTA

SLV-235 CP
SONY
 Bideoa
 2 cabezaladuna



63.900
PTA

* (INPRENTAKO AKATS EDO SALGAIRIK GABE
 GERATZEA IZAN EZEAN)

PREZIOAK B.E.Z.a BARNE

KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT

Astore
Adidas
Asolo
Avia
Boreal
Karhu
Line 7
Lowe
Mito
Millet
Nike
O'Neill
Peltz
Quicksilver
Reebok
The North Face
Think Pink
Vaude...



ARRASATE
KIROLAK

Umeen jantzieta kalitatea,
preziorik onenean

Araba Etorbidea, 18
ARRASATE
Tfnoa: 77 14 86

